

**2021EKO EKAINAREN 23KO BATZAR NAGUSIAREN  
BATZAR-EGUNKARIA (ITZULPENA)**

**DIARIO DE SESIONES DE LA SESIÓN PLENARIA DE  
FECHA 23 DE JUNIO DE 2021 (TRADUCCIÓN)**

## **AURKIBIDEA**

### **Orrialdea**

- Batzarra hasi da.....	5
- LEHENDAKARI andreak gai-zerrendako lehenengo puntua irakurri dau: “V́ctor Trimiño Vegas jaunaren batzarkide-egiaztagutuna.” ..	5
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako bigarren puntua irakurri dau: “Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 1987/3 Foru Araua aldatzea, Bizkaiko Foru Aldundiak Foru Dekretu Arauemaileekin batera txosten ekonomikoa aurkez dezan.” ..	5
- EH Bildu taldeko Urkaregi Etxepare batzarkide andreak hartu dau berbea ..	6
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Fernández Angulo batzarkide andreak hartu dau berbea.....	7
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Benito Ziluaga batzarkide jaunak hartu dau berbea ..	9
- Euskal Sozialistak taldeko Ortiz Zaballa batzarkide jaunak hartu dau berbea ..	10
- Euzko Abertzaleak taldeko Lerma Mentxaka batzarkide jaunak hartu dau berbea ..	11
- EH Bildu taldeko Urkaregi Etxepare batzarkide andreak hartu dau berbea ..	12
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Fernández Angulo batzarkide andreak hartu dau berbea.....	13
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Benito Ziluaga batzarkide jaunak hartu dau berbea ..	13
- Euskal Sozialistak taldeko Ortiz Zaballa batzarkide jaunak hartu dau berbea ..	14
- Euzko Abertzaleak taldeko Lerma Mentxaka batzarkide jaunak hartu dau berbea ..	14
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako hirugarren puntua irakurri dau: “2020ko Errenta kanpainan herritarrei sortutako arazoek konponbideak.”	16
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Fernández Angulo batzarkide andreak hartu dau berbea.....	16
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Benito Ziluaga batzarkide jaunak hartu dau berbea ..	18

- Euskal Sozialistak taldeko Álvarez Castrejón batzarkide jaunak hartu dau berbea .....	19
- EH Bildu taldeko López Odriozola batzarkide jaunak hartu dau berbea	20
- Euzko Abertzaleak taldeko Díaz Insausti batzarkide andreak hartu dau berbea .....	22
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Fernández Angulo batzarkide andreak hartu dau berbea.....	23
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Benito Ziluaga batzarkide jaunak hartu dau berbea .....	25
- Euskal Sozialistak taldeko Álvarez Castrejón batzarkide jaunak hartu dau berbea .....	26
- EH Bildu taldeko López Odriozola batzarkide jaunak hartu dau berbea	27
- Euzko Abertzaleak taldeko Díaz Insausti batzarkide andreak hartu dau berbea .....	28
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako laugarren puntua irakurri dau: “Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatzen duen gobernantza-eredua.”..	29
- EH Bildu taldeko Ilardia Olangua batzarkide andreak hartu dau berbea	30
- Euskal Sozialistak taldeko Otermin Eraso batzarkide jaunak hartu dau berbea .....	32
- Euzko Abertzaleak taldeko Lekerikabeaskoa Arrillaga batzarkide jaunak hartu dau berbea .....	34
- Elkarrekin Bizkaia taldeko De Madariaga Martín batzarkide andreak hartu dau berbea .....	36
- EH Bildu taldeko Ilardia Olangua batzarkide andreak hartu dau berbea	37
- Euskal Sozialistak taldeko Otermin Eraso batzarkide jaunak hartu dau berbea .....	38
- Euzko Abertzaleak taldeko Lekerikabeaskoa Arrillaga batzarkide jaunak hartu dau berbea .....	39
- Elkarrekin Bizkaia taldeko De Madariaga Martín batzarkide andreak hartu dau berbea .....	41
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako bosgarren puntua irakurri dau: “Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea.”.....	42
- EH Bildu taldeko Duque Santacoloma batzarkide andreak hartu dau berbea .....	42
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Fernández Medrano batzarkide jaunak hartu dau berbea .....	44

- Euskal Sozialistak taldeko Otermin Eraso batzarkide jaunak hartu dau berbea .....	46
- Euzko Abertzaleak taldeko Gómez Devesa batzarkide andreak hartu dau berbea .....	48
- EH Bildu taldeko Duque Santacoloma batzarkide andreak hartu dau berbea .....	50
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Fernández Medrano batzarkide jaunak hartu dau berbea .....	51
- Euskal Sozialistak taldeko Otermin Eraso batzarkide jaunak hartu dau berbea .....	52
- Euzko Abertzaleak taldeko Gómez Devesa batzarkide andreak hartu dau berbea .....	53
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako seigarren puntua irakurri dau: “Erakunde-funtzionamenduan kalidade demokratiko handia bermatzea.”	54
- Elkarrekin Bizkaia taldeko De Madariaga Martín batzarkide andreak hartu dau berbea .....	55
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Fernández Angulo batzarkide andreak hartu dau berbea.....	56
- Euskal Sozialistak taldeko Gil Llanos batzarkide andreak hartu dau berbea .....	58
- EH Bildu taldeko Urkaregi Etxepare batzarkide andreak hartu dau berbea .....	59
- Euzko Abertzaleak taldeko Bagan Urtiaga batzarkide jaunak hartu dau berbea .....	61
- Elkarrekin Bizkaia taldeko De Madariaga Martín batzarkide andreak hartu dau berbea .....	63
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Fernández Angulo batzarkide andreak hartu dau berbea.....	64
- Euskal Sozialistak taldeko Gil Llanos batzarkide andreak hartu dau berbea .....	65
- EH Bildu taldeko Urkaregi Etxepare batzarkide andreak hartu dau berbea .....	66
- Euzko Abertzaleak taldeko Bagan Urtiaga batzarkide jaunak hartu dau berbea .....	68
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako zazpigarren puntua irakurri dau: “Mendatako udal armarrria aldatzea eta udal bandera sortzea proposatzeari buruz Bizkaiko Foru Aldundiak hartutako erabagia.” .....	69

- EH Bildu taldeko Urkaregi Etxepare batzarkide andreak hartu dau berbea ..... 69
- Euzko Abertzaleak taldeko Inoriza Bustamante batzarkide andreak hartu dau berbea ..... 69
- Batzarra amaitu da..... 70

2021eko ekainaren 23ko batzarra goizeko 09:00etan hasi da.

Se inicia la sesión del 23 de junio de 2021 a las 09:00 horas.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Buenos días, señoras y señores, señor Diputado General, apoderados y apoderadas, estimados junteros y junteras, y a todas las personas que seguirán esta Junta General por streaming, buenos días, y bienvenidos y bienvenidas.

En el primer punto del orden del día de hoy nos corresponde la Credencial de Apoderado Electo del señor Víctor Trimiño Vegas.

1.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:  
**Iniciativa Originaria:** Credencial ([R.E.11/E/2021/0001987](#))  
**Autor:** JUNTA ELECTORAL CENTRAL  
**Asunto:** Credencial de Apoderado Electo de D. Víctor Trimiño Vegas.  
**Documento Principal:** ([R.E.11/E/2021/0001987](#))  
**Expediente:** ([11/C/03/0002517](#))

1.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:  
**Jatorrizko ekimena:** Batzarkide-agiria ([11/E/2021/0001987SE](#))  
**Egilea:** HAUTESKUNDE BATZAR ZENTRALA  
**Gaia:** Víctor Trimiño Vegas jaunaren batzarkide-egiaztagutuna  
**Dokumentu Nagusia:** ([11/E/2021/0001987SE](#))  
**Espedientea:** ([11/C/03/0002517](#))

Le convocaremos al nuevo juntero. Para ello, según la normativa vigente, se convoca al señor Víctor Trimiño Vegas para que manifieste de forma fehaciente que acepta las obligaciones impuestas por la presente normativa, así como los derechos que le ofrece. Solicitamos al señor Trimiño Vegas que tome el escaño correspondiente. Buenos días, y bienvenido.

El segundo punto del orden del día.

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak: Sí, buenos días a todos y a todas. Comenzaremos con una Propuesta de Norma Foral y será la siguiente:

2.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:  
**Iniciativa Originaria:** Proposición de Norma Foral ([R.E.11/E/2021/0001435](#))  
**Autor:** Ilardia Olangua, Beatriz - Urkaregi Etxepare, Arantza (EHB)  
**Asunto:** Modificación de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de

2.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:  
**Jatorrizko ekimena:** Foru Arau Proposamena ([11/E/2021/0001435SE](#))  
**Egilea:** Ilardia Olangua, Beatriz - Urkaregi Etxepare, Arantza (EHB)  
**Gaia:** Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko

las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, a fin de que la Diputación Foral de Bizkaia presente junto con los Decretos Forales Normativos un informe económico

**Documento Principal:**

[\(R.E.11/E/2021/0001435\)](#)

**Boletines:** [Admisión a trámite](#) (14A)

**Expediente:** [\(11/A/07/0002269\)](#)

1987/3 Foru Araua aldatzea, Bizkaiko Foru Aldundiak Foru Dekretu Arauemaileekin batera txosten ekonomikoa aurkez dezan

**Dokumentu Nagusia:** [\(11/E/2021/0001435SE\)](#)

**Aldizkariak:** [Izapidetzeko onartzea](#) (14A)

**Espedientea:** [\(11/A/07/0002269\)](#)

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Secretario. Es el turno de la juntera que ha presentado la iniciativa. Por lo tanto, señora Urkaregi Etxepare, tiene usted la palabra.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andreak: Sí, muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos y a todas.

Tal y como se ha dicho, en esta Propuesta de Norma Foral lo que planteamos es la modificación del artículo 55 de la Norma Foral 1987/3.

En el artículo 11 de esta Norma Foral se detallan las diferentes normas que existen. Por una parte, están las Normas Forales, y por otra, los Decretos Forales Normativos, que son de dos tipos: aquellos que son de transposiciones de modificaciones realizadas en temas que son competencia del Estado, y aquellos otros que son Decretos Forales Normativos Urgentes, un Decreto Foral Normativo que sustituye a otra Norma Foral por motivos de urgencia.

Más adelante, en el artículo 55, se concretan los informes que deben presentarse para que las normas sean aprobadas. Pero ahí únicamente se mencionan los “Decretos de desarrollo reglamentario de Leyes de la Comunidad Autónoma o del Estado”. Y no se incluyen los Decretos Forales Normativos del punto 9 del artículo 11, ni los de transposiciones ni los urgentes.

Hay que decir que ese punto se incluyó más tarde y desconozco si fue por dicha razón, pero en todo caso, entendemos que también a los Decretos Forales Normativos, en tanto en cuanto son sustitución de las Normas Forales, se les tienen que adjuntar los mismos informes que a estas.

Y por ello hemos planteado que se incorporen en el párrafo 1 del artículo 55 también los Decretos Forales Normativos tributarios que se detallan en el punto 9 del artículo 11 de esa Norma Foral.

De esta manera, los Decretos Normativos deberán incluir un informe en el que conste si dichos proyectos suponen o no gravamen presupuestario. Y si es así, se tendrá que presentar un informe económico. Y eso es importante, porque dichos Decretos Forales Normativos tributarios tienen un impacto económico, y deberán ir acompañados de un informe económico.

Pero, al mismo tiempo, esta modificación garantiza que vayan acompañados del Informe de Impacto de Género que se detalla en el párrafo 3 del artículo 55. Es cierto que el Informe de Impacto de Género se realiza en la mayoría de los casos, pero el artículo 55, tal y como se recoge en la actualidad, no obliga a realizarlo. Sin embargo, una

cosa es el hábito y otra es la ley, y entendemos que es la ley quien lo garantiza.

Quisiera subrayar cuatro razones para presentar esta propuesta:

-La primera: en esta Cámara se han aprobado 17 Decretos Forales Normativos desde el 17 de marzo de 2020 con el fin de regular las medidas tributarias para hacer frente a la pandemia de la Covid-19, Decretos Forales Normativos que han ido sin informe económico, a pesar de tener un evidente impacto económico. De esos Decretos Forales Normativos 11 han sido de transposición y 8 de urgencia.

-La segunda. En el caso de los de urgencia, se supone que no es viable la vía de una Norma Foral por razones de tiempo, pero no puede haber ningún pretexto para realizar un informe económico. Y si tiene un impacto económico, se tendrá que presentar un informe económico.

-La tercera razón. En Araba presentan desde hace tiempo los Decretos Forales Normativos junto con el informe económico. En Gipuzkoa se aprobó en febrero, por unanimidad, la modificación de su Norma Foral, y la pasada semana han aprobado el último Decreto Foral Normativo junto con el informe económico.

-Por último, la cuarta razón. Ya sé que el nuevo Decreto Foral 87/2021 publicado el viernes establece la obligatoriedad de adjuntar el informe económico a los Decretos Forales Normativos urgentes, no a todos. Pero la Norma Foral tiene mayor rango legal, y eso garantiza que se tengan que adjuntar dichos informes. Porque un nuevo Gobierno Foral puede modificar un Decreto Foral. Para modificar una Norma Foral deberíamos debatirla y aprobarla de nuevo en estas Juntas Generales. Por consiguiente, la última razón para proponer esta modificación es que tenemos una mayor garantía si incluimos esa exigencia en una Norma Foral.

Para finalizar, debo decir que lo que estamos debatiendo no es tanto el contenido, que lo analizaremos más tarde. Lo que tenemos que debatir es si damos paso a esta propuesta de Norma Foral. Nada más. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Urkaregi Etxepare. Continuamos con el turno de los grupos. Señora Fernández Angulo, representante del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, tiene usted la palabra.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea. Mahaikideak, ahaldun jaun-andreak, egun on guztioi. Buenos días a todos y a todas.

Gure ustez, ekimen hau eztabaida zabalago baten parte da, legebiltzarreko lanaren betebeharrak garrantzitsuenetako baten parte, eta, duda barik, betebeharrak hori herritarrentzat garrantzitsuenetako bat da, legegintza-funtzinoa, hatan be. Legegintza-funtzinoa betetea, Gobernuaren jarrera pribilegiaduari jagokonez, legegileak daukan desorekak baldintzatzen dau. Izan be, arau-ekoizpenean informazio guztia bereganatzen dau eta eskura ditu administrazioaren baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak, eta arauak egiten dabezan gobernuak daukien informazioa eta arauak eztabaidatu eta onartzen dabezan parlamentuek daukiena ez da bera.

Printzipioz, Batzar Nagusiotako gobernuaren eta gehiengo parlamentarioaren arteko tandem gero eta modu menperatzaileagoan eregitzen da gobernu legegile deitu geinken horretan, hori ezin da eztabaidatu. Izan be, askotan parlamentu hau erakundearen arkeologia museoetako piezen artean baztertu gura dau. Izan be, askotan,



legegintza-funtzinoetan Gobernuak daukan protagonismo nagusi horrek kontrapuntua aktore nagusiari emoten deusan abesbatza greziar baten egoeran jarten dau legebiltzar hau, baina ez dau oso-osoan beteten botere independente eta orekatzailearen zeregina.

Gainera, Legebiltzarreko praktikak Gobernu gustura dabilela erakusten dau Legebiltzarrari informazino eskasa emoterakoan, ez bakarrik legegintza-funtzinoan, ezpada Legebiltzarrak informazinoaz galdetu eta harek erantzuten dauenerako hilabeteak igaroten diranean be, esaterako. Eta gaur be askotan eztabaidatuko da horretaz.

Ez dogu uste Legebiltzarrak erregistro-ganbera moduko bat izan behar dauenik, Gobernuak daborduko eginda eta amaituta daukazan legeak modu formalean legeztatza mugatzen dana. Ez dogu sinisten botere betearazle-legegile baten, legebiltzarrak bete behar dauen oinarritzko zeregina daukala baino. Gobernu, batzuetan bide batetik eta beste batzuetan beste batetik, igesi ibili da, ekimenen bialketa atzeratu egin dau, eta dokumentazino ganberara bialdu beharrean informazino bide parlamentarioan eskatzera behartu dau. Eta, beraz, egoera hori gainditu egin behar dala uste dogu.

Eztabaida orekatua izan daiten eta ebatzi osoa hartzeko, ahaldunontzat arau-proiektu bakotxaren aurrekari guztiak ezagutzea ezinbestekoa dan bitartean, gaur egun arauakaz batera daukagun informazino zatikatu eta eskasagaz, Gobernuak pribilegiozko posizino eta zuzentzen dauen administrazinotik jatorkon ezagutza askoz be osoagoa eta eguneratuagoa dauka, bizkaitarrek hautatutako ordezkari ei ebasten jakena, gainera.

Hain zuzen be, Gobernuak errezeloak ditu proiektu arauemaile bat aurkeztu aurretik izan diran aurrekari guztiak Batzar Nagusi honeetako ahaldunon esku jarteko, gurago dauelako jarrera menperatzailea, azkenean babesten daben gehiengoek baldintza barik babestuko dabena.

Baina helburu gorena Legebiltzarrak bere zeregina behar dan moduan betetea da, eta horren aurrean traba horreek albo baten itxi behar dira; izan be, aurrekari guztiak emotek ordezkari ek legegintza-funtzino osorik gauzatzea aurreratzea baino ez dakar, eta euren bitartez, bizkaitarrenak.

Eta, gainera, askotan arau gatxak, hieroglifiko hutsak ekarten dira ganberara, eta gogoratu daigun Gobernuko kideek eurek publikoki salatu dabezala, PSEk berak, hain zuzen be. Izan be, Athleticeko jokalariei mesede egiten eutsen Errenta Irregularren aldaketaren aurrean, (Aldundiko Gobernu Kontseiluak onartu eban aldaketa), bere bozeramailearen bitartez aldaketa onartzea zuritu eta justifikau eban, zera aurkeztu zalako, eta berbaz berba irakurriko dot esan ebena: "lau lerroko hieroglifikoa 60 orrialde eukazan testu baten barruan. Ez da biderik egokiena". Arau gatx horreek azterketa zehatza eskatzen dabe, informazino eta erespen kualifikau guztiakaz, batez be azken helburua helburu partzialen bidez lortzen danean, eta helburu partzial horreen barne-lotura argia ez dala esan leitekenean.

Disimuloz ez betetearen teknika, legearen xedeari eta objektuei balio ez deus arauak legean ezkutuan sartzea, koiunturak ahalbidetzen dauenean, ezin eutsizko tentazino da, eta horri aurre egitea sano gatxa da.

Horregaitik, beharrezkotzat joten dogu Gobernuak erabili dauzan dokumentu, txosten eta aurrekari guztiak bialdu daizala, eta ez alde batera laga Gobernu Kontseiluan onartu zan azken testuaren arauaren zirriborroen bialketa, herritarrek egindako alegazinoen idatziak, hartzaileen eta eragindako sektoreen parte-hartzea, eta baita araua egiteko espediente osoan agertzen diran txosten eta dokumentu guztiak be.

Eta amaitzeko, ordezkari tza-funtzino eta, zehazki, legegintza-funtzino be duindu egin behar dalako; modu horretan ahalik eta judizio-elementu gehien izango dauz

bere borondatea osotzeko eta arau-produktuari buruz erabagi bat hartzeko, nahi-ta Foru Gobernuarentzat legegintza-funtzinoa Gobernu Kontseiluaren eta Batzar Nagusiek gehiengoz onartutako izapide bat besterik ez dan izango. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Fernández Angulo. El representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, señor Benito Ziluaga, tiene usted la palabra.

El Sr. **BENITO ZILUAGA** jaunak: Sí, muchas gracias, señora Presidenta, buenos días a todos y a todas. Tira, gaur eztabaidagai daukagun Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko Foru Arauaren aldaketa, gure ustez, oso proposamen interesgarria eta zuzena dala aurreratuko dot, benetan be, eta Foru Gobernuak modu errazean bete leien erreforma bat dala uste dogu. Beraz, horren kontra joatea gatx erexten deusat.

Euskal Herria Bildu taldeak dakarskun proposamenak aldaketatxo bat sartzen dau, zergen inguruan preminazko errazoiakaitik egiten diran Foru Dekretu Arauemaileak Batzar Nagusi honeetan txosten bategaz batera aurkeztu daitezcan, eta bertan proiektu horreek aurrekontuetan kargarik ete daukien jasoko da. Halanda ze, gai zehatz honi jagokonez, Foru Arauen proiektuek daukien trataera bera eukiko leukie, edo zergei buruzko foru-araudia estatuko araubide erkidearen funtsezko arauetara egokitzeagaz lotzen diran Foru Dekretu Arauemaileek daukien bera.

Azpimarratu gurako neuke be Foru Arau horretan, 55. artikuluan bertan, 2. eta 3. puntuetan, zera zehazten dala: aurrekontuetan karga bat egon ezkerro, finantzazko txosten bat eztabaidatu eta bozkatu beharko litzatekela, eta horregaz batera generoaren eraginaren inguruko txosten bat be erantsi beharko litzatekela, eta, gure eretziz, preminazko errazoiakaitik Foru Dekretu Arauemaileetan be apliketea interesgarria litzateke.

Preminazko Foru Dekretu Arauemailea figura legitimoa da, bere izateko errazoiak daukana eta gobernu autonomikoen Lege Dekretuagaz edo estatuko Gobernuaren Errege Lege Dekretuagaz parekatu leitekena. Baina hori esan ondoren, ez dogu uste figura hori larregi erabiltea zilegi danik edo, behintzat, ez dogu uste praktika ona danik, bere izenak dinoan moduan, preminazko kasuetara mugatu beharko litzatekelako.

Aurreko eztabaida batzuetan esan zan Ganbera honetan pandemiaren hasierako hilabeteak preminazkotzat jo ahal zirala. Baina, tira, urtebete beranduago hori zalantzan jarri lei, eta hori dinot azken urteko preminazko Foru Dekretu Arauemaile ia guztiak pandemiaren ondoriozko zerga-neurriei buruzkoak izan diralako. Eta ez dogu uste praktika ona danik, azken baten, preminazko Foru Dekretu Arauemaileen jarioak neurri txikien anabasa bihurtzen dauelako zergei buruzko foru-araudia, eta gatxa da norbere burua be aurkitzea bertan. Hori guztia, neurrien maminan edo egokitasunean sartu barik, horren inguruan be luze egin dogulako berba, eta ez jagoko gaurko eztabaidari.

Hori esan ondoren, eta preminazko Foru Dekretu Arauemailearen zentzuzko erabilera bat legitimoa dala azpimarratuta, hori azpimarratu egin gura dot, horreek txosten bategaz aurkeztu beharra Ogasun Sailarentzat ez dala zeregin gatxa izango esan dogu. Zergaitik dinogun hori? Ba, gure ustez, edo, behintzat, halan izan beharko leukie, neurri bat hartzen danean, preminazko Foru Dekretu Arauemaile bat aurrera ateratea erabagitzen danean, eskura dagoan informazioaren edo datuen azterketa baten oinarrituta egiten dalako. Beraz, neurri horren ondorioz, Ogasun Sailak, kasu honetan, preminazko Foru Dekretu Arauemaileari erantsi beharko leuskio bertan egin dauen azterlanaren proposamena, hau da, berori idazteko oinarritzat hartu dauzan datuak.

Gure ustez, proposamen horrek Foru Gobernuaren gardentasuna be areagotu egingo dau, baina batez be, ebatziak hartzea hobetuko dau; izan be, txosten osoak badira, eta ez ikusten doguzan genero-eraginari buruzko txostenak lakoak, zerga-neurri baten genero-eraginik ez dagoala esatera mugatzen diranak, preminazko Foru Dekretu Arauemaile horreek eztabaidatzeko zenbat eta informazino gehiago izan ganbera honetan, orduan eta erabagi hobeak hartuko dira.

Halanda ze, Elkarrekin Bizkaiaren eretxian, proposamen interesgarria eta Foru Gobernuak erraz bete leiena da, eta halan erakusten dau Araban daborduko apliketan dalako, eta oraintsu Gipuzkoako Batzar Nagusietan hori ezarteko hartu dan ahobatezko erabagiak be. Beraz, babestu egingo dogu proposamena. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Benito Ziluaga. El representante del grupo Socialistas Vascos, señor Ortiz Zaballa, tiene usted la palabra.

El Sr. **ORTIZ ZABALLA** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta, buenos días a todos y a todas. Euskal Herria Bilduk Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 1987/3 Foru Araua aldatzeko honako Foru Arau Proposamena aurkeztu deusku, Bizkaiko Foru Aldundiak, Dekretu Arauemaileakaz batera txosten ekonomikoa aurkeztu dagian.

Hain zuzen be, proposamena egin dauen taldeak bere errazoiketan jasoten dauen moduan, 2020ko martiaren 14an Alarma-egoera deklarau zanetik, Covid-19ak eragindako larrialdiaren ondorioz, eta horrek pandemia batera eroan gaituan ezkerro, Bizkaiko Foru Aldundiak hainbat izaeratako neurriak onartu eta hartu ditu, osasun larrialdiak eragindako ondorio gogorrek arintzearen. Horretan bat gatoz.

Era berean, egia da Foru Aldundiko Gobernuak 15 Foru Dekretu Arauemaile onartu dauzana daborduko, eta hori Aldundia erakunde biziduna izatearen ondorioa da; izan be, pandemia horren ondorioak arintzeko neurri zehatzak, osasun arloko neurriak, neurri ekonomikoak eta neurri fiskalak eten barik behatzen, aztertzen eta hartzen ari da. Neurri horreek guztiak personei eta okerren dagozan sektoreei laguntzera bideratuta dagoz, inor ez daiten atzean gelditu.

Baina, arabere gehiago, bizkaitarrek jakin behar dabe Aldundiak aurrekari bako pandemia honen ondorioak arintzeko beharrezkotzat jotzen dauzan neurriak hartzen jarraituko dauela. Hau da, alde batetik, Aldundia preminazkoan ari da lanean, baina egunerokoa alde batera itxi barik, eta, horregaitik, 6 hilabete baino gehiago daroaz bagilaren 15eko 87/2021 Dekretuan lanean (18an argitaratu zana). Dekretu hori 3 hilabeteko epean sartuko da indarrean eta, beste gauza batzuen artean, honakoa dino bere 25. artikuluan, eta berbaz berba irakurriko dot: “Horrez gain, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 8.2 artikuluan jasotako foru-dekretu arauemaileen kasuan, eragin ekonomikoari buruzko txostena egin beharko da, non egitamu horiek aurrekontuzko karga dutenentz ageraziko baita”. Hain zuzen be, talde proposatzaileak eskatzen dauen moduan.

Hori dala-ta, taldeak zezeilaren 13ko 3/1987 Foru Arauan proponiduten dauen aldaketa ez da beharrezkoa, 87/2021 Dekretua indarrean sartzen danetik aurrera Foru Dekretu Arauemaileak eragin ekonomikoari buruzko txosten bategaz etorriko diralako, ganbera honek baliozkotu aurretik. Eta, beraz, euskal sozialistok ezezkoa emongo deusagu Foru Arau hau aldatzeko proposamen horri; izan be, 3 hilabete barru EH Bildu taldeak eskatzen dauen hori errealidade bat izango dalako. Nada más, muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Ortiz Zaballa. Y el representante del grupo Nacionalistas Vascos, señor Lerma Mentxaka, tiene usted la palabra.

El Sr. **LERMA MENTXAKA** jaunak: Sí, muchas gracias, señora Presidenta, y buenos días a todos y a todas.

Bueno, en primer lugar, o lo primero que debemos expresar es nuestra conformidad con el último fin u objeto de la propuesta que ha formulado EH Bildu, porque creemos que es razonable que al tratarse de Decretos Forales Normativos tengan que adjuntar cuando se envían a las Juntas Generales un informe económico en el caso de que conlleven un impacto o un impacto económico en sus presupuestos. Con eso estamos de acuerdo.

El asunto es que, y lo diré claramente, no creemos que para ello sea necesario modificar ninguna Norma Foral. Es más, creemos que ha quedado evidente o se ha explicado que en el trámite que hay que seguir no resulta necesario modificar una Norma Foral, sino que hay que seguir otra vía. Y, por lo tanto, vamos a oponernos a la propuesta, y votaremos en contra.

EH Bilduren proposamenak Foru Arau bat, 3/1987 Foru Araua aldatzea planteau dau, 55. artikulua, eta behar dan moduan azaldu da; izan be, Foru Dekretu Arauemailetan berariazko aitamen bat sartuta. Lehenago ez zan holakorik aitatzen, zergei buruzko Foru Dekretu Arauemaileei jagokenean, eta ez zan aitatzen proiektu horreek edo Foru Dekretu Arauemaile horreek aurrekontuzko karga daukien edo ez adierazoko leuken txostenik.

Jakina, nire ustez, argi dago ez dana Foru Arau hau, hain zuzen be, berez Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzkoa dalako. Ez da daukagun tresna bakarra, araudia arautzeko tresna bakarra, baina egia da 3. kapitulu bat daukana, “Foru Arau-egitamuak gertutzeko prozedura” deitzen dana, eta bertan 55. artikulua dago. Baina hori ez da, inondik eta inora, gure araudi guztiak edo aldaketak onartzeko darabilgun tresna bakarra.

Eta, egia esan, Foru Arau horrek oso puntu gitxi eta oso alderdi gitxi arautzen dauz arauak onartzeko jarraitu beharreko prozedurari jagokonez. Horren haritik, irismen eta eduki mugatuak ditu, eta hori argi eta garbi azaltzen da 2/2017 Foru Dekretuaren zioen azalpenean bertan. Izan be, Dekretu horrek Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen dau.

Berez, Dekretu horren bidez hainbat prozedura arautzen eta ezarten doguz zehatzago Foru Arauak, beste araudi batzuk eta beste arau-xedapen batzuk be egiteko, Foru Arau horreen maila eta garrantzi berekoak diranak, eta baita arautegiaren arauak onartzeko prozedurak be.

Halanda ze, Dekretu hori da aldatu beharko litzatekena, eta hori daborduko egin da. Agerraldian nire aurretik berba egin dauenak be azaldu dau EH Bilduren proposamenaren azken helburua beteta dagoala Foru Dekretu barri baten onarpenagaz, aurreko barikuan argitaratu zana. Izan be, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen dauen 87/2021 Foru Dekretua dogu, eta 25. artikulua zerga-araudietarako prozedura berezia aitatzen dau, besteak beste, Foru Dekretu Arauemaileetarako prozedura.

Berez, 25. artikulua horretan 3 paragrafo dagozala uste dot; lehenengo paragrafo biak gaur egun hondinokoarren indarrean dagoan 2/2017 Foru Dekretuaren 1. Xedapen Gehigarriaren 3. atalean jasota egoan gauza bera esatera eta azaltzera datoz, nahi-ta beste era batera dinoen. Eta beste bat gehitzen dau, eta horrelan dino berbaz berba: “Era

berean, Foru Dekretu Arauemaileei dagokienez”, zergei buruzko paragrafoa luzeagoa da, “eragin ekonomikoari buruzko txostena egin beharko da, non egitamu horiek aurrekontuzko karga dutenentz ageraraziko baita”. Eta horren ondorioz, bete da EH Bilduren proposamen horren azken helburua, baina aurretik indarrean egon danaren ordezkari Foru Dekretu hori onartzea da egokiena, eta ez horrenbeste foru-arau bat aldatzea.

Eta, bestetik, gobernuaren lanari emoten jakon garrantzi txikiari buruz adierazpen batzuk egin dirala esan behar dot. Hori ez da horrelan, ezta hurrik be. Emoten jakun informazinoan ez dago horrelango defizitrik. Izan be, Foru Dekretu barri hau 3 hilabete baino gitxiagoko epean sartuko da indarrean. Eta, zalantza barik, bete egingo da, eta adierazo edo erabili egingo da, eta beharrezkoa danean informazino ekonomikoa bialduko da beti. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Lerma Mentxaka. Pasamos al turno de réplicas. La representante del grupo EH Bildu, señora Urkaregi Etxepare, tiene usted la palabra.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andreak: Sí, muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días de nuevo.

Proposamen hau ez onartzeko errazoa beharrezkoa ez izatea dala esan leiteke, daborduko Foru Dekretu bat dagoalako.

Lo primero que debo decir es que lo he comentado antes, que una de las razones es que la Norma Foral es de un gran rango legal. El hecho de existir un Decreto Foral y modificar una Norma Foral no son contradictorios. Todo lo contrario, son complementarios. Y tal y como he dicho, la Norma Foral nos da mayor garantía. Y ¿por qué nos da una mayor garantía? El Decreto Foral es competencia del Gobierno Foral. El anterior diputado no incluyó el informe económico; ahora el nuevo lo ha incluido. ¿Qué hará el siguiente? Lo desconozco, pero no nos enteraremos. Queda en manos del Gobierno Foral. Y creemos que el hecho de que se recoja de forma clara en la Norma Foral tiene una mayor garantía, porque lo debatiremos aquí, y tendremos que aprobar si se modifica o no se modifica. Por lo tanto, tiene una mayor garantía legal y democrática, y no son contradictorios. De ninguna manera; son complementarios. Por eso mantenemos nuestra propuesta.

¿No quieren permitir esta propuesta de Norma Foral? A pesar de que el portavoz del PNV ha dejado claro que están a favor de lo que proponemos. Están ustedes a favor, pero no desean aprobar, y creo que esta actitud demuestra claramente cuál es su modelo de gobernanza.

Ni, nire, niri, nigaz. Edo zuon kasuan, Foru Gobernuko jaun-andreak, eta babesten zaituenen kasuan, zeuok zeuokaz. Rechazan cualquier propuesta que venga de la oposición, a pesar de estar a favor, tal y como lo han explicado aquí. En Araba y Gipuzkoa lo tienen incluido en la Norma Foral. Aquí no. Bizkaia actúa de otra manera, pero no para bien. Evidentemente, Araba y Gipuzkoa actúan de forma correcta; en Bizkaia limitan la competencia que tienen estas Juntas Generales. Y creemos que eso tiene que cambiar. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak. Muchas gracias a usted, señora Urkaregi Etxepare. La representante del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, señora Fernández Angulo, tiene usted la palabra.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea.

Guk, oposizino taldeok, defizita dagoala defendidu dogu, Gobernuak Legebiltzarreko ganbera honek egin behar dauen lanari emoten deutsan laguntzan defizita, hain zuzen be. Beste era batera esanda, gure ustez, legegileak, araua onartzeko organo erabagitzalea dan heinean, Gobernuak berak daukan informazino bera euki beharko leuke, berak proponiduten dauelako. Eta horrek ez dau desorekarik sortu behar legegintza-organoen eta organo exekutiboen artean, eta hori da orain gertatzen dana. Eta, jakina, behar diran erespen eta txosten guztiak be euki behar doguz, ebazpen eraginkorra emon ahal izan daigun. Tribuna honetan orain dala gitxi be esan genduan, gure eretxian, beharrezkoa zala horretarako berariaz sortutako eta egituratutako kontsulta-organo baten derrigorrezko erespena izatea, eta, hain zuzen be, Aholku Batzorde Juridikoa aitatu genduan, eta erespen hori gaur eztabaidagai dogun ekimenean eskatzen dan txostenari gaineratuko litxakio.

Zergaitik? Gure ustez, horrek arauen kalidade objektiboari lagunduko leuskio; izan be, Gobernuak berak eta ganbera honek, Batzar Nagusiek, legegintzazpenerako garrantzitsuak diran elementuak eukiko leukiez. Eta norengan eukiko leuke eragina? Zalantza barik, hori, azken baten, bizkaitarren eskubide eta interesen mesederako izango litzateke.

Azken baten, ekimen hau beharrezkoa dala uste dogu. Egia da proponiduten dan arau-aldaketa hori be ez jakuna nahikoa iruditzen; izan be, nire taldeak uste dau, eta horrelan esan dogu, osotasunean egin behar jakola aurre zergen gaineko foru-dekretu arauemaileakaz batera joan behar dauen informazioaren gaiari, bai eta arau-ekoizpen osoari be, Batzar Nagusi honeei jagokelako informazino hori onartzea. Eta txostenak eta agiriak osorik bialtzea be aztertu egin behar da, eta beste batzuk sartzea be. Esaterako, aitatu barri dodana, Lege-proposamenean sartu dana, Aholku Batzorde Juridikoaren erespena, hatan be. Eta, horregaitik, abstenidu egingo gara bozketan. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Fernández Angulo. El representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, señor Benito Ziluaga, tiene usted la palabra.

El Sr. **BENITO ZILUAGA** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta.

Ondo da. “Foru Arau hau ez da beharrezkoa” sortu eta handik hile bira Foru Dekretu Arauemaile baten bidez haren bardina atera ebenen bigarren entrega daukagu gaur, eta honakoa dogu: “zure proposamena gustetan jat. Beraz, aurreratu egingo naz eta Foru Dekretu bidez aterako dot”. Horixe da Gobernu honen aldartea. Gero zera entzun beharko dogu, orain preminazko Foru Dekretu Arauemaileen txosten ekonomikoak ditugula horri esker.

Eta hori guztia ekimen hau atzeratuta; izan be, ondo azaldu deuskuen moduan, Foru Dekretu hori 3 hilabeteko epean sartuko dalako indarrean, oraintxe bertan Foru Arau proponiduteko prozesua hasi beharrean. Horixe da Foru Gobernuak eskaintzen deuskun kudeaketa, immobilismoagaitik edo aurrea hartzeagaitik ganbera honen araugintza-lana bahituta daukana. Nire ustez, ikusi barri doguna nahiko triste da. Eta hori pandemia hasi zanetik gertatzen ari da. Covid neurrietako baten eztabaida bat be ez da gura izan ganbera honetara ekarri, ez berreregite-mahaiaiaz, ez preminazko foru-dekretu arauemaileakaz, ez pandemiaren kudeaketagaz be. Bizkaia Egiten programarako baino ez ziran zabaldu proposamenak, 2 edo 3 egun eskas izan zirala uste dot, eta ganberaren Arauz Besteko Proposamenean bat, baina hori be ez da beteten ari.

Nik arean gehiago bilatu dot datuetan, eta azken bi urte honeetako preminazko Foru Dekretu Arauemaileen artean, 8 dagoz Covidaren ingurukoak zehatz-mehatz eta Gobernuaren ekimenez izan diranak. Azken 2 urte horreetan, 27 estatuko errege lege-dekretu dagoz, eta horreetatik 7 ekonomiari eta zergei buruzkoak dira. EAJren Kongresuan diputadu baten saioen egunkaria be topau dot, Sagastizabal andrearena, eta zera inoan: “Errege Lege Dekretuaren figura larregi erabilten da. Hainbat Covid dekretu onartu dira, beste arau batzuk barriztetan dabezan arauak eta, bide batez, aurreko beste batzuk barriztetan dabezanak. Horrek, azkenean, erregulazino-kaosari emoten deutso bidea eta ziurbakotasuna be sortzen dau”. Hara, berba horreek ezagun egiten jataz: Jaungoikoari erregutzen eta Dekretuagaz emoten.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Benito Ziluaga. El representante del grupo Socialistas Vascos, señor Ortiz Zaballa, tiene usted la palabra.

El Sr. **ORTIZ ZABALLA** jaunak: Muchas gracias de nuevo. Azkenetik hasiko naz, harritu egin nazalako. Benito jaunak berba bat erabili dau tribuna honetan oso gogorra iruditu jatana: “bahitu” berbea esan dau. Benetan be sano berba gogorra iruditu jat, baina tira, hor ixten dot bilera-agirian jaso daiten.

Eta, gero, gogorarazo gura deusut 2020ko martiaren 14tik hona pandemia baten sartuta gagozala eta, izan be, Aldundiak, Aldundiko Gobernuak, lehen esan deusudan moduan, dekretu batzuk onartu ditu, 15 dekretu, okerren igaroten ari diran personei eta sektoreei laguntzeko. Ondo dakizun moduan, pandemia ez etorren jarraibide-liburu bategaz. Beraz, erabagiak hartu behar izan dira. Horreetako batzuetan sakondu egin behar izan da. Beste batzuk zuzendu egin behar izan dira, eta horixe da Aldundia egiten ari dana, ezelako immobilismo barik. Ez dakit zuok non zengozen, baina Aldundiko Gobernu laguntza emoten ari jaken okerren egozan personei eta sektoreei.

Eta gero, hemen beste eztabaida bat biztu da, eta nire eretxian, maminaren eta formaren artean dago, argi eta garbi. Mamina argi dago; proposamen honetan Foru Dekretu Arauemaileei txosten ekonomiko bat eransteke beharra eskatzen zan. Hori argi geratu da 87/2021 Dekretutik aurrera horrelan izango dana. Hiru hilabete barru izango da; izan be, Benito jauna, zergaitik ez dan egiten esan dozu. Ez, ez. Aldundia legezkotasuna baino ez da beteten ari, eta indarrean sartzeko 3 hilabeteko tramitea igaro behar da. Baina hortik aurrera zergei buruzko Foru Dekretu Arauemaileak txosten ekonomikoagaz batera etorriko dira. Eta horixe da agerraldi honen xedea, horixe da helburua, eta gainerakoa forma kontua da, Dekretuan ete doan edo Arauan ete doan. Hara, Euskal Sozialiston ustez, Dekretua bera lantzen ari zan ezkerro, lantzen ari zan, ez orain, ez da orain sortu, ezpada orain dala 6 hilabete abian jarten ari zan ezkerro, hori errealidade bat da, eta horregaitik, gure eretxian, txosten ekonomiko horreek sartu beharraren aukera ezin hobeto beteten da. Eta horregaitik, azkenean, araua aldatzeko proposamenaren aurkako botoa emongo dogu. Nada más, muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: muchas gracias, señor Ortiz Zaballa. Y para finalizar el debate, el representante del grupo Nacionalistas Vascos, señor Lerma Mentxaka, tiene usted la palabra.

El Sr. **LERMA MENTXAKA** jaunak: Muchas gracias de nuevo. Idea batzuk. Lehenengo eta bat, arauak egiteko prozeduretan eta legegileari emon beharreko informazinoari jagokonez, guztiz argi daukat bidezkoa ez dana pentsetea atzera egingo dala, dana txarto doala eta gauza guztiak beti kontrara egiten dirala pentsetan ez bada behintzat. Beti

kontrara pentsetan ari gara.

Hain zuzen be, arau barriak sortzeari jagokonez, legegileari emon jakozan informazinoak hobetu eta ugaritu egin dira denporan zehar, duda barik, izan foru-arauak, zein foru-dekretu arauemaileak, zein arauzko dekretuak bakarrik. Ez dauka ezelako zentzunik atzera egingo dala pentseteak, eta Urkaregi andreari erronka egiten deusat, hori jazoten danean, jazoko bada, gogorazo deidala. Baina eurek proponiduten eben helburu bera lortzeko behar dan edukia foru-dekretu baten sartzen ari gara.

Creo que ya he dicho antes que estoy de acuerdo, o que estamos de acuerdo con el objetivo final. Baina oso argi be esan dot ez gagozana ados jarraitu beharreko prozedurari jagokonez. Ez eiguzue esan bat gatozala, bat gatozala esan dogula, ez, ez. Esan doguna da ez gagozala ados Euskal Herria Bilduk bere proposamenean ezarten dauen prozeduragaz eta prozedurari buruzko ikuspegiagaz. Gainera, eta Lurraldeakaz alderatzen dogu, Lurralde bakotxak bere tresnak daukaz eta guk, lehen azaldu dodan moduan, Foru Dekretu bat daukagu, araudi desbardinak egiteko jarraitu behar dan prozedura guztia askoz be gehiago zehazten dauena.

Ez dakit zehatz-mehatz zer euki leikien, adibidez, Gipuzkoan, baina, esaterako, Gipuzkoako Lurralde Historikoan ez da ohikoa estatua arautzen ari dan gauza bera, zehatz-mehatz, arautzeko behar diran araudiak edo zerga-araudiko edukiak bere araudi propioetan sartzea, eta hori esanguratsua da. Jarduteko modu desbardinak dira eta, beraz, bakotxak daukaguzan tresnak daukaguz.

Eta, azkenik, eta oso labur, eta esapidea onartzen badeustazue, dana alderantziz ulertzea zelebrea dala iruditzen jat. Hara, ez dogu hasierako proposamenik zuzendu; hau da, Foru Aldundiak 6 hilabete eroan dauzala esan da, edo 6 hilabetez lanean egon dala esan da azken Foru Dekretu hori egiten. Eta, aldi berean, argi geratu daitela ez dala atzeratzen zentzun horretan ezelako barrikuntzarik, ezelako ekimenik, 3 hilabete baino lehen indarrean egongo dalako Foru Dekretu barria. Foru Dekretu barria.

Zenbat denpora uste dau Elkarrekin Bizkaiako bozeramaileak emon leitekela Foru Arau baten aldaketa izapidetzeko? Ba askoz be gehiago, askoz be gehiago. Askoz arinagoa da Foru Aldundiak erabili dauen bidea ikusarazo gura deuskuzuena baino. Ez dot esango behartu deuskuzuena, legegilean daukazuen pisua daukazuelako, eta ez da aintzat hartuko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Por favor, vaya finalizando.

El Sr. **LERMA MENTXAKA** jaunak: Muchas gracias. Se me ha terminado el tiempo.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Lerma Mentxaka. Y una vez finalizado el debate, someteremos a votación la toma en consideración o no de la iniciativa.

¿Votos a favor de la toma en consideración? ¿Votos en contra? ¿Abstenciones? El resultado es el siguiente: se han emitido 49 votos en total. Han sido 15 votos a favor; 32 votos en contra; 2 abstenciones. Por lo tanto, no se toma en consideración la iniciativa.



El tercer punto del orden del día.

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

3.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Moción derivada de Interpelación ([R.E.11/E/2021/0001847](#))

**Autor:** Fernández Angulo, Amaya (GM/TB-PPB)

**Asunto:** Las soluciones a los problemas generados a la ciudadanía en la campaña de Renta 2020.

**Documento Principal:**

([R.E.11/E/2021/0001847](#))

**Boletines:** [Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas](#) (35A)

**Expediente:** ([11/B/20/0002445](#))

3.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

**Jatorrizko ekimena:** Itaunetik eratorritako Mozinoa ([11/E/2021/0001847SE](#))

**Egilea:** Fernández Angulo, Amaya (GM/TB-PPB)

**Gaia:** 2020ko Errenta kanpainan herritarrei sortutako arazoek konponbideak

**Dokumentu Nagusia:** ([11/E/2021/0001847SE](#))

**Aldizkariak:** [Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea](#) (35A)

**Espedientea:** ([11/B/20/0002445](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Es el turno de la juntera que ha presentado la iniciativa. Por lo tanto, señora Fernández Angulo, tiene usted la palabra.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Eskerrik asko, Mahaiburu andrea.

Mozino honen sorburua dan Itaunean iragarri neban tolesbakotasun politikoko ariketa bat egingo ebal nire taldeak gaur, tribuna honetan. Esan behar dot jagokun pisuagaz be apaltasun osoz dinogula legegile honetan. Izan be, tolesbakotasun politikoko ariketa hori benetan bete egin da, eta hementxe gagoz, Foru Aldundi burugorragaz.

Ez dira epeak luzatu, ez da emon behar izan dan aurrez aurreko arretarik, ez da funtsean zuzenketarik egin, ez eta herritarrei kalte-ordainik emon be. Foru Gobernuak bizkaitarrek jasandako sufrimentua noiz ahaztuko zain dago. Ia guztiek, Foru Gobernuak izan ezik, jakina, Errenta-kanpaina gitxienez kaos eta penagarritzat jo dabe, demokraziako Errenta-kanpainarik negargarriena dala eretxi deusie, eta horren aurrean Foru Aldundiak akatsa txikiagotu egin dau, egoera txarra albait arinen igaro daitela ahalegindu da, albait arinen amaitu eta ahaztu daiten.

Baina Aldundiko arduradun nagusiek egoera edozein modutan gainditzen ahalegintzeaz gainera, akatsa leporaino heldu dan ezkerro, egoera dakien modu bakarrean irauli gura dabe, eta arazoa oposizinoaren, sindikatuen, aholkulari fiskalen, pentsiodunen eta herritar guztien ahots kritikoen gehiegikeria dala azaltzen ahalegindu dira. Danona, benetako arduradunena izan ezik.

“Eredua gelditzeko etorri da, eta etorkizuna da”, baieztu dau Foru Gobernuak. Mesedez, ez! Izan be, ezagutu dogun moduan, eredu hori porrota izan da, atxakia barik, eta bizkaitarrei hamaika arazo eragin deutsez. Eredu araztu eta fidagarria etorri daitela behar dogu, aurrez aurreko bidea berreskuratu daitela, behar diran bitarteko eta baliabide guztiakaz, banketxeakaz hitzarmenak berraktibetea aztertu daitela, eta sistema barria finkatu

arte araubide iragankor mistoa ezarri daitela. Izan be, zergadunen konfiantza, lasaitasuna eta segurtasuna berreskuratu behar dira, buruko min barik, susto barik, ezagutza digitalik eta baliabide tekniko nahikorik ez daukien milaka bizkaitar baztertu barik.

Digitalizazioan aurrera egiten jarraitu behar dalako, baina ez edozein modutan; ez edozein modutan. Titular mediatikoan ez da saldu behar lehenak izango garala sistema bat ezarten, prestakuntza barik, probau barik, probak egin barik, hasiera-hasieratik porrot egin dauen sistema danean eta herritarrak ia-ia laborategiko zerga-akuri lez erabili dauzana.

Ezin dalako sistema bat ezarri esperimendu barik, behar dan moduan aztertu barik, prisakaz eta diskriminazio digitalakaz. Sistema hori apurka-apurka ezarri behar da, herritarrak arrakala digitalean harrapauta gelditu ez daitezana.

Izan be, Foru Ogasuneko bertako sindikatuek argi eta garbi adierazo dabe, erabat argi; izan be, aurrez aurreko arreta kentzea salatu dabe, ez dagoalako, beste barik. Paperean izapidetzeko baliabiderik ez dagoala dinoe; era berean, tresnak arazoak emon dauzala eta Ogasun Sailean guztiek ekiela arazoak emongo ebazala adierazo dabe.

Aplikazioa, datu bako egitura, urtarrilean amaitu zan; edozein informatikarik baekiala ziurtatu dabe hori doitu eta araztu egin behar zala. Kanpaina hasieratik astakeria izan dala gogorarazo dabe, penagarria, ez dalako prestakuntzarik emon; eta, gainera, errenta-aitorpenak aldatzeko jente-aurreko arretarako administrariak be badaukazue, horretarako prestakuntzarik ez daukien arren. Izan be, zeozer erraztea ulergarri egitea da, esan deusuegu, eta administrazioen betebeharrak nagusienetako bat segurtasuna, lasaitasuna eta konfiantza bermatzea da, eta horrek porrot egin dau bete-betean Errenta-kanpaina honetan.

Baina hori bardin jatzuen, aitzindariak ginala saldu behar zan guztiaren gainetik. Zertarako probau sistema, herritarrakaz zuzenean probau geinkenean? Zertarako probau automobila, ibili ahala probau geinkenean, karraderan, pilotuak istripua euki leian arren? Beti esan geinke gidatzeko arazo bat izan dala, edo gidariaren trebetasun-falta, ardurabakotasuna erakutsi dala, administrazioari eusten deusienei, bizkaitarrei errespetu-falta bat.

Baina kasu honetan Ahaldun Nagusiak berak astegoien honetan egindako alkarrizketa larreakoa izan da. Errenta-kanpainak hainbat personari, batez be nagusiei eragin deuten larritasunaz jabetzen ete zan galdetu ondoren, sentsazioak dirala erantzun dau. Irakurri nebanean, ezin neban sinistu, benetan. Sortu dauenagaz eta esan danagaz, herritarren larritasunak pertzepzio psikologikoak dirala erantzun dau, eta hori gitxi balitz, Ogasunagaz telefonoz hartu-emonetan jarteko gai izan ez dan jenteaz galdetu deusienean zera erantzun dau: lehenengo egunetan jente pilaketa egoala. “Buruko minak sortu ahal izan dirala? Bai, baina gure helburua beti da zerbitzua hobetzea. Beraz, hobetzen jarraituko dogu datorren urtean akats gitxiago egon daiten”. Zer esanik ez, asmo onek ez dabe inoiz politika txar bat on bihurtu.

Eta nire buruari zera galdetzen deusat: ba al dago hoztasun gehiago herritarren larritasuna, batez be adinekoena, sentsazioakaz konpontzea baino? Arreta-falta jente-pilaketakaz? Eta milaka bizkaitarrek errenta-aitorpenagaz izan dabezan arazoak “hobetu egin behar dogu” esateagaz?

Horrek guztiak argi erakusten dau okerrena gai honek Gobernuari sortzen deusnan nagitasuna dala, deserosotasuna. Jakina, errenta-aitorpenaren proiektuagaz sortu dan arazo hori ez da planeta-proiektu horreen multzo horretakoa, hala nola Bizkaia Torrea, Ekintzailtzaren Nazioarteko Zentroa, Nagusi Intelligence Center eta Energy Intelligence Center, horretan gustura dagozalako. Gainerako guztia, sentsazioak dira. Ogasunak arazoakaz

egin dauzan 76.000 likidazio-proiektuak? Sentsazioak. Likidazio baten bizkaitar bati heldu jakozan 36.000 euroak, Foru Ogasunak salmenta-prezioa konputau eutsalako, baina ez erosketa-prezioa? Sentsazioak. Eta hor, gehiago eta gehiago. Sindikatuen salaketak? Sentsazioak. Bizkaiko Erretiratuen Federazioak egin dauzan salaketak? Sentsazioak, nahita esan dauen ia-ia ezinezkoa jakola errenta-aitorpenak egiaztatzea, argibideak telematikoki eskatzea..., traba horreek guztiak agirian ipini dauzanean.

Hain zuzen be, eta honegaz amaitu egingo dot, nire eretxian, Gobernu honen ustez Bizkaiko herritarren benetako arazoak datuetara eta sentsazioetara mugatzen dira. Gobernu honen ustez, antza, datuak dira garrantzitsuenak eta, bide batez, datuak eurek egiten dabez eta ez pertsonen. Gaur beste aukera bat eukiko dogu atxakietarako eta zuriketarako, eredu honek sortu dauzan arazoei konponbidea emoteko baino. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Fernández Angulo. El representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, señor Benito Ziluaga, tiene usted la palabra.

El Sr. **BENITO ZILUAGA** jaunak: Sí, muchas gracias de nuevo.

Tira, Batzar Nagusi honeetan sarritan egin dogu berba 2020ko Errentaren kanpaina negargarriaren inguruan. Kanpaina hasi orduko be izan genduan berbabide, esango neuke oposizino taldeei ezeze herritarrei be planteetan euskuzan zalantza eta galdera zentzuzkoak kontuan hartuta. Halanda be, zalantza batzuk argi eta garbi erantzun zirala esan neike; eta orain bai, esan ginke beste batzuk guztiz ilun erantzun zirala.

Zentzuzko zalantzak sortu ziran ezker, eredu barri horren ezarpena hobetzeko proposamen batzuk be eztabaidatu ziran; esate baterako, mailaka egitea akatsak topetako edo eskualdeko edo udalerrietako bulegoak zabaltzea behar eben herritar guztiei aurrez aurreko arreta bermatzeko. Baina, tira, ez ei zan behar horrelangorik, Bizkaia ederto baten ei ebilen utopia teknologikoa egia bihurtzeko bidean.

Baina espektatiba errealdadeagaz alderatzen dauen meme baten moduan, errenta-eredu barri horren hasiera erabateko hondamendia izan zan eta izan da. Hildako 162 personari bialdutako gutunak, Bizkaikoak ez ziran 805 zergaduni gutunak, bigarren abizena asmatuta bialdu ziran 27.000 gutun, aitortzen behartuta ez egozala esan jaken 29.000 persona, behartuta egon ziran arren, eta behartuta ez egozan beste 19.000 personari ez jaken horren barri emon.

Bialdu ziran aitoren-proposamenen %3ak kalkulu akats bat eukan, zergadunak gero bete beharreko datuak falta baziran be. Errentaren zirriborroak be ikusi doguz, eta bertan pentsiodunei, esaterako, Ogasunari 20.000 euro ordaindu behar eutsiela esaten jaken. Akatsak izan dituan eta osotubako aplikazioa be ikusi dogu, Ogasun Saileko bertako langileentzat be alperrekoa izan dana. Eta, hiru astez horrelangorik ez egoala eta perfektua zala esan ondoren, azkenean Foru Gobernuak onartu egin behar izan eban argi eta garbi sistema barria sortzen ari zana, kaosa eta ondoeza, eta aitatu dodazan sortutako arazo horreetako batzuei konponbide batzuk jarri behar izan eutsezan.

Halanda be, gaur egun, sistema barri horren gabezia batzuk zuzendu barik dagoz, eta arabere okerragoa dana, hondinokoarren ez dira onartu. Eta, batez be, aurrez aurreko arretarik eza da, eta, horretarako, foru-administrazioak Bizkaiko herritarri ginkana ulergatx eta gogor bat, eta azterketa bat ezarten deusaz, aurrez aurreko arreta hori eskainiko jakon edo ez ikusteko. Azaldu jakunaren arabera, aurrez aurreko arreta eskatu ezker, lehenengo eta bat, zerga-informazioa telefonoz emotea da kontua. Tira, honaino

zenezkoa be eretxi ahal deusat.

Baina azaltzen jarraitu euskuen moduan, aurrez aurreko arreta eskatzen jarraitu ezker, konplikazioaren eremuan sartzen gara, agenteak aintzat hartzen badau. Hau da, zergadunaren ebatziak ez dauka inongo garrantzirik; bere datuak hartzen dira, eta behin deia hartuta koordinatzaile batek aurrez aurreko hitzordu hori emongo jakon baloretan dau, eta barriro be deitu egingo jako hitzordu hori emoteko.

Hara, nik galdera erraza daukat, eta zera da: zertan oinarritzen ete dan foru-administrazioa herritarrak Errenta aurkezteko aukeratu leiken bidea balorau ahal izateko. Izan be, Administrazio Prozedurari buruzko 39/2015 Legearen arabera, administrazioak bide elektronikoa gaitu behar dau edozein izapidetarako, eta herritarrak eskubidea dauka bide hori erabilteko. Eskubidea, eta ez betebeharra, persona juridikoen edo antzekoen kasu jakin batzuentzat ez bada; Legeak zehazten dau.

Zer jazoten da persona batek, nik neuk, esate baterako, aurrez aurre egin gurako banau? Ukatu egingo jat arreta hori? Koordinatzaileak zergaitik egiten deutso ebaluazino antzeko bat baliabide elektronikoakaz konpontzen ez dan persona bati, edo telefonoz segurtasunik sentitzen ez dauen persona bati, zoro bat balitz lez?

Eta, izan be, horixe da gaiaren mamina, Bizkaiko Foru Aldundiak errenta egin behar dauen herritarra gogaikarritzat tratetan dau, hatsitu bat lez, eta haregaz hobeto telefono bidezko hartu-emona baino ez eukitea. Eta ez hori bakarrik, ezpada telefono bidezko hartu-emona baino ez eukitea azpikontratautako persona baten bitartez, Infojobs moduko enplegu-atari baten eskaintza kutre baten bitartez, herritar hori egiten ari dana bere zerga-betebeharrak betetea dan arren. Eta hori argi eta garbi esan behar da. Ez da inondik eta inora eusten eta, beraz, protokolo horreek aldatu egin behar dira.

Bigarrenik, oker eta akats asko onartu eta handik hiru astera zuzendu egin diran arren, onartu egin diran arren, ezagun da persona fisiko batzuek aholkularitza eskatu behar izan dabena euren errenta-aitorpena aurkezteko.

Kanpaina amaitzen danean zehatzago jakingo doguz kopuruak, baina egindako akatsakaitik, gure ustez, bidezkoa da Bizkaiko Foru Aldundiak gastu hori konpondu dagiala, Alderdi Popularrak aurkeztu deuskun Arauz Besteko Proposamenean azaltzen dan moduan. Beharbada ñabarduraren bat edo beste euki geinke proposamen horregaz; izan be, gure taldeak beharbada ez leuke baztertuko horren itzulketa zuzena be, desgrabazioaren orde. Edo beharbada desgrabazio hori errenta-aitorpen nahiko errazak daukiezan personei baino ez jake eskaini behar, normalean aurrez aurreko sistemaren bidez aurkezten diranak, finantza-erakundearen bidez. Baina, edozelan be, aurreratu egingo dot Alderdi Popularrak aurkeztutako proposamena egokia iruditzen jakula eta babestu egingo dogula. Bat gatoz sistema honi goitik beherako garbikuzia emon behar jakola esatean; lehenengo eta bat, aurrez aurreko arreta bermatuta, eta bigarrenik, sistema horrek sortu dauzan aparteko kostu bidegabeak konponduta. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Benito Ziluaga. El representante del grupo Socialistas Vascos, señor Álvarez Castrejón, tiene usted la palabra.

El Sr. **ÁLVAREZ CASTREJÓN** jaunak: Mahaiburua andrea, mahaikideak, batzarkide jaun-andreak, buenos días a todos y a todas.

Errenta-kanpaina amaitzeko astebete falta danean, sisteman identidatea

egiazatzeko sortu ziran akats batzuk ekarri gura dodaz gogora, Errenta 2020 webgunera sartzea oztopatu ebenak. Akats horreek apirilaren 6an 8 orduz eta 7an 7 orduz gertatu ziran.

Egia da, halaber, lehenengo egunetan akats informatikoak detektau zirana be, aitortenaren pantailetakoz batzuk bistaratzeari eragiten eutsienak, esaterako, edo aitortenak kalkuletako orduan aintzat hartzen ziran datu guztiak erakusten ez ebazanak. Gorabehera horreek ez eben inondik eta inora adierazoten zerga oker kalkulauta egoanik.

Norberaren edo familiako ustezko kenkari batzuk edo familia-unidadearen banakako aitortenetan agertzen ziran murrizketa batzuk ez ziran baterako aitortpena bialtzen. Ogasunak bere gain hartu eban akats bakotxaren erantzukizuna, eta eraginpeko zergadunei egokion zenbatekoa itzultzeko prest agertu zan, eta hori eskatzeko ez zan ezer egin behar. Hori guztia Ogasuneko foru-diputaduak eta arloetako zuzendariak be hainbat agerralditan eta behin eta berrero aitortu eta azaldu dabe, ganbera honetan zein hemendik kanpo be.

Halanda be, hondino be esan egiten da, batzuetan lotsa barik, 2020ko Errenta-kanpaina herritarren kaosaren, nahastearen, segurtasunik ezaren eta buruhausteen artean joan dala. Jakina, horixe daukie aurrez eregitako kontakizunek. Izan be, horreei eusten deutsegu eta bardin jaku zer esaten dan edo zer azaltzen dan.

Baina errealidadea burugogorra da. Errenta 2020 webgunearen aplikazioak sortu dauen paradigma-aldaketak milioi bat personaren errenta-aitortpena aztertzea, iruzkinak egitea, aldatzea, osotzea edo aurkeztea ahalbidetu dau. 8.975 kalkulu-arau ezarri dauz eta 80 iturri desbardinetatik ateratako 709 milioi datu baino gehiagogaz behar egiten dau.

Dakigunera arte behintzat, eta behin betiko datuak ezagutu bitartean, martxan jarri dan aplikazio horrek 8.975 arauetatik 12tan erakutsi dauz akatsak. Egia da akats horreek aitorten-proposamenen %3ri eragin deusiezana; Benito jaunak esan dau. Datuak bistaratzean 43 gorabehera, 709 milioi eta erdi datu desbardin izan diranean.

Orain dala 4 aste 377.747 ziran aurkeztutako aitortenak. Ezarritako sistemak, bere akatsakaz, persona gehiagori arreta emoteko aukera emoten dau, baina, benetan, ez da sekulakoa. Administrazio-bulegoetara joan beharra saihesten dau, egia da, baina zergadun batzuei arrakala digitala deritxanak eragiten deutse. Alderdi Sozialistak konpromiso irmoa dauka garapen teknologikoagaz, teknologia barriakaz eta herritarren arteko benetako aukera-bardintasunagaz. Agenda publikoetako lehentasunei buruzko adostasuna lortzen saiatzea izango da karkoa. Aldaketa teknologikoak aurrera egiten jarraitzen dau. Arrakala digitala murrizteko edo inklusino digitala lortzeko politika publikoak diseinetek eta formuleteak agintari guztien betebeharrak izan behar dau. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Álvarez Castrejón. El representante del grupo EH Bildu, el señor López Odriozola, tiene usted la palabra.

El Sr. **LÓPEZ ODRIOZOLA** jaunak: Buenos días, y gracias, señora Presidenta. Apoderados y apoderadas, buenos días a todos y a todas.

Una vez más tenemos como tema de discusión la Campaña de Renta, a pesar de que está ya a punto de finalizar, ya que lo hará la próxima semana. En esta Campaña de Renta, muchos de los temas que están sobre la mesa ya se han mencionado en sesiones anteriores, pero los problemas permanecen ahí. El pasado mes se solicitaban más recursos, y el

primer punto de esta moción va en esa misma línea.

Si realizamos un ejercicio de empatía, muchas personas no han obtenido ninguna aclaración en la campaña, ha habido errores, ya se han mencionado en las anteriores intervenciones, errores que también los mencionamos en la sesión en la que se debatió la Campaña de Renta. Y han necesitado ayuda, no solo por los errores, sino también por un sistema que les era totalmente extraño. Antes contaban con la ayuda de las entidades financieras de cara a la campaña, pero en esta ocasión no la han tenido, por lo que muchos y muchas han tenido que recurrir a asesorías privadas, obligatoriamente, debiendo abonar esos servicios de su propio bolsillo.

Sin embargo, recordemos que EH Bildu nunca ha visto con buenos ojos que las entidades financieras participen en esto, porque desde siempre pensábamos que ese vacío lo tenía que cubrir el sistema público. Pero ahora, de una situación que no era buena hemos pasado a otra que es peor, evidenciando una pérdida del peso del sector público.

El hecho de recurrir voluntariamente a las asesorías está bien; no hay ningún problema siempre y cuando sea una elección personal, pero cuando se hace impulsado por la obligatoriedad, porque la Diputación no ha puesto los recursos suficientes y porque las entidades financieras impulsadas por la Diputación que en campañas anteriores tomaron parte este año no lo han hecho..., eso es síntoma de haber tenido una escasa previsión. No debemos generalizar, porque muchas asesorías realizan una labor muy fina, pero también las hay quienes hacen su “agosto” personal, aumentando las tarifas que les cobraban a personas particulares durante los años anteriores.

Cuando la calidad y los recursos del Sector Público se reducen, hacemos que el o la declarante recurra al sector privado, que luego pagamos entre todos y todas a través de gastos tributarios... Pues no, no podemos trabajar de esa manera.

¿Hay que impulsar la digitalización? Sí, pero no de forma apresurada, sino cumpliendo debidamente cada paso y cada fase, empezando por la fase de testeo mencionada en la anterior sesión. De esas motas de polvo vienen luego estos barrizales...

El caso es que esta campaña finalizará la próxima semana, y que su repercusión debería servir para la campaña del próximo año. En ese sentido, a pesar de que el punto de esta moción es correcto, tiene poco alcance en cuanto al tiempo, y creemos que tendría que añadir también la campaña 2021.

En cuanto al segundo punto, se plantea en el mismo sentido; al fin y al cabo, una mayor cercanía entre la institución y la ciudadanía. Sin embargo, tal y como hemos señalado anteriormente, tiene poco alcance porque tendría que tener en cuenta también la campaña 2021, ya que esta está ya a punto de finalizar, por lo que ya no tienen retorno numerosas cosas que han sucedido este año. Cuando a la ciudadanía se le coloca cualquier filtro, obstáculo o dificultad, el decir que el sistema funciona bien dice mucho sobre la importancia que se le da, o mejor dicho, sobre la importancia que no se le da a la ciudadanía. Pues no, cuando existen estos problemas, el sistema no funciona. El diseño puede ser bueno, pero el funcionamiento no lo es. No para toda la ciudadanía por igual, siendo las personas más perjudicadas aquellas que tienen escasez de recursos. Da igual qué noticias-titulares manejamos; el sistema no funciona.

Con el tercer punto, en cambio, tenemos un problema. Por eso solicitamos que se vote independientemente de los dos puntos anteriores. En primer lugar, la deducción para todo el mundo no es justa. Quienes en el pasado también recurrían a asesorías tendrían un premio por seguir haciendo lo que hacían hasta ahora, porque no se han visto en la obligatoriedad de recurrir a asesorías ni en años anteriores ni tampoco este.

Además, si se adopta esa medida, ¿quién nos asegura que las asesorías, viendo la compensación que supone esa deducción, no inflen los precios? ¿Hasta qué punto les beneficia realmente a las rentas más sencillas una deducción de este tipo? ¿Quién es el principal beneficiario?

A la hora de plantear deducciones de ese tipo, antes de proceder a ninguna votación, creemos que este tema requiere de un análisis más profundo. Quizás sea más correcto ir al meollo del problema, y darle el nivel, los recursos y el peso correspondientes a la función pública y que esta requiere, para que la ciudadanía se relacione directamente con el sector público, y de esa manera acabaríamos de raíz con el problema.

Y para finalizar, estas son las consecuencias de no hacer bien las cosas, el estar debatiendo sin cesar mociones y propuestas no de norma sobre un mismo tema. Por lo tanto, tal y como hemos mencionado, y, para resumir, solicitamos que esta moción no sea votada en su conjunto, y que se voten por una parte los dos primeros puntos, ya que estamos de acuerdo con ellos, y el tercer punto por otra parte. Sin más, muchas gracias por su atención.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor López Odriozola. La representante del grupo Nacionalistas Vascos, la señora Díaz Insausti, tiene usted la palabra.

La Sra. **DÍAZ INSAUSTI** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta, y buenos días a todos y todas las junteras.

Una vez más tenemos sobre la mesa el tema de la Campaña de Renta de 2020, que hoy presenta el Partido Popular y en cuya propuesta se proponen especialmente tres medidas:

-Por una parte, que se adopten las medidas necesarias para garantizar la atención presencial y telefónica para el asesoramiento en la Campaña de Renta.

-Por otra parte, que desaparezcan esos supuestos filtros que impiden que la ciudadanía acceda a esa atención presencial.

-Y, para finalizar, que se establezca una desgravación en la declaración de 2021, tal y como se señala en la propuesta, para compensar los gastos de asesoría fiscal que se hayan tenido que abonar como consecuencia del cambio de modelo.

Antes de comenzar con la propuesta debemos decir que las palabras como kaosa, nahastea, penagarria... utilizadas para describir esta Campaña de Renta, en nuestra opinión, no reflejan la imagen real de la campaña. Hacienda ha dado a conocer en todo momento aquellos datos que demuestran una imagen real de la campaña, y que van más allá de las sensaciones que se han querido trasladar a la ciudadanía en esta Cámara, y que dibujan la imagen real de la campaña. Por lo tanto, los datos son importantes.

Falta una semana para que finalice la campaña y hasta el día 14 de junio se han presentado 580.482 declaraciones de renta. De todas esas declaraciones casi un 73 % se han presentado a través de la página web o de la app. Casi un 19 % se han presentado de forma automática, sin que el o la contribuyente haya tenido que realizar ningún trámite. Más del 8 % de las declaraciones se han presentado telefónicamente, y únicamente el 0,1 %, es decir, 360 declaraciones se han presentado a través de una atención presencial. Y tal y como mencioné en la sesión del pasado mes, este dato es similar al de la campaña de 2019. Por lo tanto, la razón no es que no se dé la atención presencial.

En comparación con la campaña de 2019, las declaraciones presentadas hasta el 14 de junio han superado las autoliquidaciones presentadas durante toda la campaña del pasado año, y tengan en cuenta que aún falta una semana para que finalice la campaña.

Por lo tanto, creemos que este nuevo modelo de la Campaña de Renta evidencia, una vez solventados los problemas iniciales, que está funcionando bien. Todas las personas contribuyentes han tenido a su alcance las suficientes vías o formas para cumplir con sus obligaciones. Y ese es, precisamente, el objeto de este modelo, ayudar a las personas contribuyentes a presentar la declaración como es debido.

Se ha repetido a menudo que únicamente el 55% de las personas contribuyentes recibía de Hacienda la propuesta de liquidación, y con este nuevo modelo dicha propuesta la han recibido todas las personas contribuyentes, y eso, aunque parezca mentira, ha facilitado mucho las cosas a muchos de ellas, puesto que no han tenido que dirigirse físicamente a una oficina por la situación de pandemia que vivimos.

En cuanto a la atención, es cierto que durante los primeros días de la campaña las líneas de teléfono estaban saturadas, pero desde el inicio de la campaña hasta ahora se han atendido más de 475.000 llamadas, y desde comienzos de mayo se han recibido diariamente alrededor de 8.000 llamadas. Desde el 30 de abril se responden prácticamente todas las llamadas, el 95 %, y Hacienda ha realizado más de 60.000 llamadas a los números de teléfono que quedaron sin responder en su momento.

En cuanto a la atención presencial, se ha repetido a menudo que todas aquellas personas contribuyentes que han necesitado una atención presencial han recibido una atención presencial. La Diputación Foral ha repetido en numerosas ocasiones que realizará un análisis profundo una vez finalizada la campaña para identificar los puntos débiles y fuertes de este nuevo modelo y para mejorar los servicios de cara a próximas campañas. Y teniendo en cuenta que seguramente dejaremos atrás esta situación de pandemia más pronto que tarde, tenemos la certeza de que esa atención presencial mejorará en próximas campañas. Y con todo esto, vuelvo a las propuestas presentadas para adelantarles que votaremos en contra.

Por una parte, las dos primeras propuestas no las vemos necesarias. Los datos afirman que las personas contribuyentes pueden ponerse en contacto tanto por teléfono como de forma presencial. Es cierto, tal y como he señalado, que la pandemia ha limitado las atenciones presenciales y, como consecuencia de ello, no puede darse esa atención presencial a demanda, pero cualquiera que haya necesitado una atención presencial la ha tenido a través de una cita previa, o dicho de otra manera, nadie que haya necesitado una atención presencial se ha quedado sin ella. Por lo tanto, tal y como he dicho, no creemos que esas dos medidas sean necesarias.

Y en cuanto a la última medida, creemos que no es preciso ningún tipo de desgravación. Creemos que este nuevo modelo posibilita muchas formas o modos de presentar la declaración sin que se tenga que recurrir a asesorías fiscales. Los datos señalan que hasta el 13 de mayo solamente se han presentado 13.398 declaraciones a través de empresas de asesoría, y resulta imposible conocer si ha sido por el nuevo modelo o por otra razón. Por lo tanto, tal y como he señalado, no aprobaremos las medidas presentadas. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Díaz Insausti. Pasamos al turno de réplicas. La representante del Grupo Mixto-Partido Popular, señora Fernández Angulo, tiene usted la palabra.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Eskerrik asko, Mahaiburu



andrea.

Ba, egia esan, gaurkoan zuri entzun ostean baten batek sano disgustu handia eroango dau, eta ez naz ni. Disgustua Euskadi Buru Batzarreko presidenteak, Ortuzar jaunak eroango dau. Izan be, beste alkarrizketa baten, orain dala bi aste, Bizkaiko Foru Aldundiak errenta-aitorpenaren eredu eta berori inplementau dan era kontuan hartuko dauzalakoan egoala esan eban. Beraz, zuri entzun ondoren, badinotsut gaur disgusturik handiena Ortuzar jaunak eroango dauela. Izan be, tribuna honetan barriro aitatu dozuzan sentsazinoak berbabide izanda, berak be bizkaitar gehienok eta, jakina, Legebiltzarreko Ganbera honetan oposizino politikoa osotzen dogunok daukagun sentsazino bera eukala emoten dau, hau ustekabea.

Proposamen honi egiten deutzazuen zehetasunean errazoia daukazuela aitortzen deutsuet, hau da, kanpaina amaitzeko astebete falta danean aurkeztu edo eztabaidatzen dala dinozuenean. Baina begira, ez da nire erantzukina. Aurreko eztabaidan Elkarrekin Bizkaia taldeak aurkeztutako proposamen bat egoan. Epealdi luzeagora zabaltzeko ahalegina egin zan batzuek sentsazintzat jotzen daben hori, beste guztiok, gehiengo handi batek, benetako konponbideak eskatzen dabezan arazoak dirala uste dogun arren; ba, esan dodan moduan, hori denporaldi luzeago eta zabalagoan konpontzeko aukera egon eiten ahalegina egin zan. Niri gustauko jatan hori horrelan izatea eta, beraz, aurkeztu doguzan hiru proposamenak benetan inplementau ahal izatea.

Egin dozuen bigarren zehetasun garrantzitsua bizkaitar askorentzat zerga-aholkularitzako gastuak izan dauen kostuaren desgrabazinoaren ingurukoa da. Izan be, azterketa egiten danean ikusiko dogu benetan zenbat diran eta zein baldintzatan. Tira, hori garatzeko aukera egongo da, bai arau bidez, bai araudi bidez; izan be, nire ustez, beharrezkoak diran zehetasunak ezarteko aukera be egongo da, horrelango egoera bat iruzurra egiteko aprobetxau leikenik egon ez daiten, edo aurreko ekitaldietan edo errenta-kanpainetan egiten ari zana baliatzeko inor egon ez daiten.

Dana dala, nire ustez, ezarten diran politika publikoetan sortzen diran zailtasunez eta arazoez egiten danean berba, ezin gara atxakian eta kexuan gelditu. Ez dau balio; benetako konponbideak jarri behar dira mahai gainean. Eta horixe zan, hain zuzen be, persona horreei ordetzeko modu bat, hau da, normalean aholkularitza batera joaten ez ziran personei eta kasu honetan joan egin behar izan diranei, eredu horrek izan dauzan zailtasun handiakaitik. Izan be, asko dira eta danok ezagutzen doguz, Gobernu babesten dauen gehiengo parlamentarioan egon, edo oposizinoan egon.

Nire eretxian, guk ez dogu egon behar..., erakundeok..., baina, nire ustez, batez be Aldundiak, Gobernuak ez dau egon behar bizkaitarrei eskatzeko bakarrik, eta ez dauz herritarrak zergadun hutsak lez ikusi behar; zerga-betebeharrak betetea errazteko baino ez dogu egon behar. Eta oraingo honetan ez da hori egin, eta hori onartu egin behar dozuela uste dot, parkamena eskatzeko be izan ez diran agerraldietan babestu beharrean. Izan be, kasurik onenean "hobetzen ari gara" baten itxura hartu deutzagu, baina, nire ustez, olerkari batek esaten dauen antzean esan dozue, baten bat putzu-barrenean dagoanean hobetzea baino ez dagoala adierazoten dauenean, edo gagozan datak aprobetxauta, eskolako notetan ezarten dan suspentsioaren adieran.

Edozelan be, onartu egin beharko zeunkie tribuna honetan horrelango sistema bat hobekuntza guztiakaz inplementau behar zala, hasieratik ekipamentu guztiagaz, egiteko guztiak eginda, zeuok egindako datuak bakarrik emon beharrean. Izan be, aukera egongo da datu horreek garbitzeko eta zelan egin diran ikusteko, Errenta-kanpaina honen azterketa sakon eta bizia egingo dalako.

Tira, tribuna honetan Gobernu hau babesten dauen gehiengoari 7 edo 8

orduko edo egun gitxiko arazoak egon zirala esaten entzuten jakonean, hara, hori bizkaitarrek jasan dabenetik erabat kanpo bizitea da. Eta, gainera, nire ustez, politikan jenteak komunikabideetako titularren bidez parkamena eskatzea eskertzeaz gainera, tribunan eskatzea be eskertzen dau, eta atxakia horreei konponbide bat ipini dakiela. Izan be, zelan egiten dogun da kontua, zelan eskatuko jaken parkamena, aholkularitza bat lehenengoz ordaindu behar izan daberen herritarrei, bide telematikoa ezarri jaken herritarrei (askotan horretarako sarbiderik be ez eukienean), zelan eskatuko jaken parkamena pentsiodunei, sistema hori ezarteak eragin handia sortu dauelako eurekan; zelan eskatuko jaken parkamena Foru Aldundiko sindikatuei.

Nire ustez, eta uste dot herritarrek be eskertuko leukiela, gai izan behar gara bidebakokeria hori ez daiten parkamen hutsean gelditu. Arabere gehiago, benetako konponbideak be eskaini behar dira, eta, nire eretxian, horixe da era batera edo bestera oposizionoko taldeok gura izan doguna, baina Gobernu, antza, kasu honetan gehiago dago “eutsi eta ez zuzendu” horretan, esan dodan moduan, astebete baino ez dalako geratzen eta hori guztia ahaztu egingo dalakoan, baina, nire ustez, ona izango zan eta Aldundiak sinisgarritasunean irabaziko leuke...

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Por favor, vaya finalizando.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Bai, bukatzen noa, Mahaiburu andrea. ... sistema txarto inplementau dala eta sakon berrikusiko dala aitortuko baleu, eta benetan berreskuratuko dala aurrez aurreko aukera. Eta, mesedez, ez eizue erabili atxakia lez pandemia lehendik diseinatu egoan eredu justifiketako, osasun krisia hasi baino askoz lehenago. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Fernández Angulo. El representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, señor Benito Ziluaga, tiene usted la palabra.

El Sr. **BENITO ZILUAGA** jaunak: Sí, muchas gracias.

Tira, lehenengo eta bat, Díaz Insausti andrea, Errentari buruz eztabaidatzeko tribuna honetara agertzen zaran bakotxean, ezagutzen ez genduan datu barri bat emoten deuskuzu. Oraingo honetan datuen zerrenda bat emon dozu; esate baterako, 60.000 dei itzuli dirala. Ogasuneko foru-diputaduak, itaun bategaitik hemen agertu zanean, apirilean, 23.800 aitatu zituan. Ez dot ikusi zuk galdera idatzi bat edo informazio bat eskatu dozunik; beraz, Batzar Nagusietako ahaldun lez, hementxe gagozan gainerakook moduan, Foru Gobernuaren Sailagaz bide zuzenen bat badaukazu, ba esaiguzu, geuk be datu berberak euki daiguzan.

Oposizionokook ahoberoak garala esan deuskuzue, hiperbolea, tira, baina ezin dozue esan dana ondo dagoanik be. Izan be, Ogasun Saileko langileen ordezkariak be publikoki krikitau dabe sistema hori ezarri izana, Ogasuneko eraikinaren ateetan be manifestazioa egin dabe eta. Zer funtzionamentu on dinostazue?

Ez da akats informatikoen eta azkar zuzendu diran datuen akatsen kontua bakarrik. Hiru aste behar izan ziran. Eta hori kudeaketa txar baten ondorioa da, esan egin behar da eta horrelan onartu behar da. Sistema hori inplementau gura zan, presaka, egin behar ziran probak egin barik, eta azkenean pasetan dana pasetan da, itxura baten probau barik edo gitxienez zergadunen zirriborroak edo datuak gainbegiratu barik kaleratu zala, hain zuzen be.

Guk behin eta barrero esan dogu hori. Izan be, ondo erexten deusagu Bizkaiko herritarrek euren errenta-aitorpena elektronikoki aurkeztu ahal izateari, aurrez aurre bertaratu behar barik. Horretan beti ados egon gara eta! Aurrera digitalizazioan egin leitekezan aurrerapen guztiakaz. Baina, jakina, persona askok aurrez aurreko arreta jasoteko daukien eskubidea edo beharra be atzean itxi barik.

Eta nik egoera bera alderantziz azaltzen deusuet. Zer gertatzen da ni elektronikoki artatzeko koordinatzaile batek balorau beharko baleu elektronikoki artatzearen egokitasuna? Ez leuke zentzunik eukiko. Eta horixe da aurrez aurreko arretagaz jazoten ari dana. Nik aurrez aurreko arreta gura badot, zergaitik balorau behar deuste arreta hori behar dodan ala ez? Hori zergadunak berak balorau beharko dau. Eta gainera, Bizkaiko Foru Aldundiak herritar guztiak izapideak modu digitalean egin dagiezala gura dau, eta hori ondo dago, baina horretara behartuta egin gura dozue, oraintsura arte Bizkaiko Foru Aldundiak berak ez zituan bere izapide guztiak modu digitalean eskaintzen. Urrun joan barik, 2020ko abenduan ahalduntzen erregistro elektronikoa gaitu zan. Batzar Nagusiek eurek hondino ez daukie erregistro elektronikoa, baina, jakina, zuek horretara behartu gura dozuez. Eta aurrez aurreko hitzordua eskatzen badabe, ba, tira, deitu barrero, balorauko deusugu, ea gura dogun, eta gero be ikusiko dogu ea nork artatzen zaituan edo zelau kontratau dogun.

Alderdi Popularraren mozino hau, zeozelan, gure taldeak aurreko Osoko Bilkuran aurkeztutakoaren antzekoa da, eta, zoritxarrez, atzera bota zan. Guk be Gobernuak bere immobilismoa barrero aztertu dagian aukera lez ikusten genduan, gai honetan daukan ohiko harrokeriatik urten dagian eta herritarrei aurrez aurreko arreta emon degien, ez bakarrik 2020ko Errentaren kanpainan, ezpada helduko diran geroagokoetan be. Hori bai, zera esan behar deusut, Fernández andrea, ez baztertu etorkizunean zure proposamenaren 3. puntua jasoten dauen Foru Dekretu arauemileren bat.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Benito Ziluaga. El representante del grupo Socialistas Vascos, señor Álvarez Castrejón, tiene usted la palabra.

El Sr. **ÁLVAREZ CASTREJÓN** jaunak: Mahaiburu andrea, mahaikideak, buenos días de nuevo. Benetan, apirilaren 6an eta 7an webgunera sartzeko zailtasunak egon zirala aitatu dot. Apirilaren 8an kaosa, hondamendia, ardurabakotasuna, nahastea, segurtasun eza aitatu ziran, eta sartzeko zailtasuna izan zan. Hortik aurrera hiperboleak, Benito jauna, benetan be, errazoa daukazu. Hiperbolea larregi erabili da.

Guztioi gustauko jakun, seguru, sarbidea mila aldiz bidertu izana, tratu zuzena Ogasuneko bulegoetan, seguruenik. Ba bai. Beharrezkoa? Ba seguruenik, ez. Errazoituta? Kasu batzuetan.

Orain, izurridunak eta mespretxagarriak esaten entzun deusudanean, zergaduna ez da ez izurriduna ez mespretxagarria administrazinorako, eta administrazioak be ezin dau tratau, eta ez dau tratetan, jakina, ez izurridun lez, ez mespretxagarri lez. Egia esan, ez da ez kapritxoa ez arbitrariotasuna, zeozelan esatearren, iragazketara eroan gaituana. Zure ustez kapritxoa eta arbitrariotasuna dira? Orduan, hortik aurrera, orduan, zure ustez, alderdi teknikoak zalantzan jarten dogu edo administrazinoagan mesfidantza sortzen dogu? Ez daigun berba gehiago egin, eta zuk ez badozu uste kasuistika izan dala “esaidazu zertan lagundu ahal deusudan” galdetzerara eroan zaituana, ez esan gehiago, Benito jauna. Eskerrik asko.

Beste alde batetik, proposamena egin dauen taldeak aurreko urteetan dohainik jasoten eben zerbitzu bategaitik errenta-aitorpenagaz lotuta egin behar izan dabean gastuak ordaintzea be aitutzen eban. Dohainik ez, dohainik ez, ez; izan be, zerbitzu hori

zergadun guztiok ordaintzen genduan; erakunde laguntzaileok dohainik eta maitasunez ez, ez horixe. Eta zenbakiak egiten badoguz, harritu egingo ginatete aitorpen bakotxa zenbateraino izan ahal zan jakiteaz.

Ondo da. Nik aurreko kanpainak eta erakunde laguntzaile horreek gogoratzen dodaz, zergadun bat ondare-irabazi edo ondare-galerako eragiketa bategaz heltzen zanean: jada ez, ezin deusugu egin. Gogoan daukat baita baso baten mozten ziran 4 pinugaitik be, ezta, jarduera ekonomikoak diralako. Persona horreek bajoiazan, errenta-aitorpena zelan egin bilatzen eben, boltsikotik ordaintzen eben, hara. Mediatikoa ez zan ezkerro, orduan inor ez zan haiez gogoratu, ezta? Ez da ezer jazo.

Orain persona batzuk profesionalakana joan dira aholku eske, orain eta gero, egongo dira, bai, jakina. Sistemak zailtasun batzuk izan dituala? Seguru baietz. Ez dala bikaina? Seguru ezetz. Bikaina izaten bukatuko dauela? Berme osoz. Eta batez be, eta garrantzitsuena, gai izango al gara lan egiteko benetan teknologia barriak ezarri daitezcan eta aukera-bardintasuna danon artean erraztu daigun? Helduko al gara guztion arteko adostasun horretara hori egin ahal izateko? Izan be, hori izango litzateke izan beharko geunken aukera, eta aprobetxau daigun, herrialde bateko historia demokratikoan lehenengo aldia dalako Gobernuak Espainia modernizetako eta teknologia guztietarako sarbide-bardintasuna bermatzeko baliabideak eskaintzen dauzala. Begira, 12.000 milioi euro, aurrekontua % 75 handituta. Uste dot guztioi merezidu deuskula behar egitea horrek gure herritarren erabateko hobekuntza ekarri dagian. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Álvarez Castrejón. El representante del grupo EH Bildu, señor López Odriozola, tiene usted la palabra.

El Sr. **LÓPEZ ODRIOZOLA** jaunak: Señora Presidenta, buenos días de nuevo. Sistema ondo badabil, zergaitik gabilz bueltaka mozinoakaz eta antzeko ekimenakaz? Ondo joango balitz, logika agirikoa izango zan eta dana geldituko zan dagoan moduan. Nire agerraldiagaz jarraitu orduko esan behar dot Fernández ahaldunari ez deusala inork errurik bota errenta-kanpaina datorren astean amaitzeagaitik. Ezarten jakuzan denporak bizi doguz eta ez deuskuez aldatzen ixten aurreko ekimenetan moduan.

Álvarez Castrejón jaunari, apirilaren 6a eta 7a gogoratzea ondo egon dala esatea baino ez. Oso ondo egon da apirilaren 8an kaosa aitatzen zala gogoratzea be. Halanda ze, ondo egongo zan gogoratzea be apirilaren 27an eta 29an, hurrenez hurren, zergadunei parkamena eskatzeko bi prentsaurreko egon zirala. Sistema ondo badabil, zergaitik eskatu behar da parkamena?

Izan gaitezcan zintzoak. Kanpaina hau oso urrun dago esaten dan gauza on guztietatik, eta ez naz zerga-bilketari buruz ari, sistemaren funtzionamentuari eta sistema horrek izan dauzan albo-akatsei buruz baino. Izan lei aretoan ez aitortzea, gauza bera gertatzen dalako; mozino bat aurkeztu eta ez da onartzen, baina gero beti izaten da prentsaurrekoren bat edo Foru Arauren bat, beti izaten da aldatetaren bat hemendik 2, 3 hilabetera, eta ikusi egiten da. Baina, daborduko, aldatetak egongo dirala iragarten dozuenean, izenburu batzuk eta aldateta batzuk egongo dirala iragarten dozuenean, helburu argiakaz izan daitela eta ez, eta berbaz berba esango dot “aurrez aurreko hitzordu gehiago berreskuratuko dira pandemiak nabarmen baldintzatu gaitualako aurten, edukierak mugak ipinten dabez”. Kitu aitamena.

Tira, “gehiago” berbea kuantifikau egin behar da arean; kuantifikau egin behar da idea bat euki daigun danok, “gehiago”, bat gehiago edo bi gehiago izan leitekela. Pandemiak baldintzatu egin gaituala be argi dago; baldintzatzen jarraitzen gaitu eta hondino be

baldintzatzen jarraituko gaitu, zeozelako normaltasunera heldu arte, danok behar dogun normaltasuna.

Nabarmen eragin deuskula esatea, “nabarmen” kuantifikatu eta beste modu baten azaldu behar dogun berbea da. Eta edukierak bai, mugak ipini ahal deuskuez, baina horretarako azpiegitura fisiko nahikoak daukaguzanean ez da edukiera mugak ipinten deusuzana, beste borondate batzuk baino. Halanda ze, zentzun horretan, berbaren bat aldatu be egin behar da. “Hitzordu gehiago berreskuratu” baino, ez zan berreskuratzea izango. Guri argi eta garbi “aurrez aurreko hitzorduak ugaritzea” esatea gustauko jakun, funtzio publikoari merezidu dauen pisua eta tokia emoteko.

Baina horrek guztiak apurka-apurka zerbitzuak kanpora ateratera garoaz, kasu honetan be bai. Eta zerbitzuak kanpora ateraten diranean sektore publiko baten kaltetan, sektore publiko horrek ikusten dauenean modu eraginkorrean egingo leukezan bere funtzioetako batzuk sektore pribaduan egiten dabilzala, eta bere lana egiteko baliabide gitxiago emoten jakozanean, ba atxakia ezin hobea bilatzen da, beste behin, publikoak ez dauela funtzionatzen eta gehiago atera behar dala kanpora esateko, eraginkortasuna bilatu behar dala. Baliabide nahikorik emoten ez danean, normala da eraginkortasunik ez izatea; lehenengo eta behin, baliabide nahikoak emon behar dira eta gero eraginkortasuna neurtu.

Sin más, viendo que este sistema no funciona bien, mantenemos la misma opinión: votaremos a favor de los dos primeros puntos, y el tercero no lo vemos claro. Creemos que hay que analizarlo mucho más y, por lo tanto, en lo que respecta al tercer punto, votaremos en contra. Muchas gracias por su atención.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor López Odriozola. Y para finalizar con el debate, la representante del grupo Nacionalistas Vascos, señora Díaz Insausti, tiene usted la palabra.

La Sra. **DÍAZ INSAUSTI** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta. Aurreko agerraldian esan dodan moduan, ez gagoz batere ados talde batzuek Errentaren Kanpainaren inguruan egin dabezan kalifikazioakaz, ezta eretxi publikoari kaosaren sentsazioa eta gorabeherek zergadun gehienei eragin deutseela helarazoteko moduagaz be.

Datuak, Fernández andrea, garrantzitsuak dira datu objektiboak badira, eta edozein talderen eskura dagoz, eskatu ezker. Eta, Benito jauna, aitatu dozun datua, eta daukadan ustezko pribilegio hori prentsa-oharrean argitaratutako datua da, Foru Aldundiko webgunean, ekainaren 15ean. Aitatu dodazan datuek kanpaina honen errealidadea erakusten eta egiesten dabe. Izan be, edozein hitzaldiren gainetik Errentaren Kanpainaren errealidadea erakusten dabe, eta errealidadea zera da: behin hasierako arazoak gaindituta, eredu barri hau ondo dabilela. Egia esan, gaur egun aurreko kanpaina osoan baino errenta-aitorpen gehiago aurkeztu dira, eta gehienak webgunearen edo app-aren bidez aurkeztu dira. Egia esan, Aldundiaren laguntza behar izan daben zergadun guztiek jaso dabe laguntza, telefonoz edo aurrez aurre, eta inori ez jako aurrez aurreko hitzordurik ukatu, behar izan badau.

Baina ez daigun ahaztu pandemian gagozala, eta ez da atxakia; gaur egun bizi dogun errealidadea da. Edukierak mugatuta dagoz; gaur egun edozein zerbitzu eskuratzeko, publikoa zein pribadua izan, aurretiko hitzordua behar da, eta inguruabarrak kontuan hartuta, aurrez aurreko arreta ezin da eskariaren arabera izan, eta arabere gitxiago hilabete gehiago iraun dauen Errenta-kanpaina honetan.

Sindikatuak esandakoari jagokonez, harrigarria da ofizialki ezarritako bideak edo foroak erabili ez izana. Eta, desgrabazioaren gaira barriro etorrira, esan dodan

moduan, guk ez dogu beharrezko ikusten. Eredu barri honegaz zergadun guztiek jasoten dabe aitortpenaren proposamena eta bide batzuk daukiez aurkeztu ahal izateko. Arazoren bat izatekotan, beti euki ahal dabe foru-laguntza arazo hori konpontzeko edo edozein izapide egiteko, eta behar izan ezker, beti eskatu leie alde aurretik hitzordua eta aurrez aurreko arretara joan.

Eta aurreko agerraldian esan dodan moduan, maiatzaren 13ra arte 13.300 aitortpen baino arean gehiago aurkeztu dira bakarrik zerga-aholkularitzen bidez, nahi-ta egia dan, tira, azken hilabete honetan gehiago aurkeztuko zirala, baina ez jaku iruditzen arduratsua danik legeak egitea ustezkoetan oinarrituta.

Eta, azken baten, gure eretxiz, eredu barri hau eredu barritzailea da eta guztiok horretara egokitzea eskatzen dau, bai administrazioa eta bai zergadunak be, eta Aldundiak beharrezkoak diran neurriak hartuko ditu zerbitzua zuzentzeko eta hobetzeko, dana hobetu leitekkelako. Baina, batez be, ondo dabilen eredia da eta geratzeko etorri da. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Díaz Insausti.

EH Bildu ha solicitado una votación por puntos; el grupo proponente ha dado el visto bueno. Por lo tanto, haremos dos votaciones. En primer lugar, votaremos los puntos primero y segundo. Por lo tanto, ¿votos a favor de estos puntos? ¿Votos en contra? No hay abstenciones.

Por lo tanto, el resultado es el siguiente:

En total se han emitido 49 votos. Votos a favor han sido 17, en contra 32, no ha habido abstenciones. Por lo tanto, no se han aprobado el primer y segundo puntos. A continuación, pasamos a votar el tercer punto. Votos a favor, 8. Votos en contra, 41 y no ha habido ninguna abstención. Por lo tanto, el resultado es el siguiente:

Se han emitido 8 votos a favor; en contra, 41. Por lo tanto, no se aprueba el tercer punto.

A continuación, el cuarto punto del orden del día.

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

4.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Moción derivada de Interpelación ([R.E.11/E/2021/0001849](#))

**Autor:** Ilardia Olangua, Beatriz (EHB)

**Asunto:** Modelo de gobernanza impulsado por la Diputación Foral de Bizkaia.

**Documento Principal:**

([R.E.11/E/2021/0001849](#))

**Boletines:** [Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas](#) (36A)

**Expediente:** ([11/B/20/0002447](#))

4.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

**Jatorrizko ekimena:** Itaunetik eratorritako Mozinoa ([11/E/2021/0001849SE](#))

**Egilea:** Ilardia Olangua, Beatriz (EHB)

**Gaia:** Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatzen duen gobernantza-eredua

**Dokumentu Nagusia:** ([11/E/2021/0001849SE](#))

**Aldizkariak:** [Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea](#) (36A)

**Espedientea:** ([11/B/20/0002447](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Es el turno de la juntera que ha presentado la iniciativa. Por lo tanto, señora Iardía Olangua, tiene usted la palabra.

La Sra. **ILARDIA OLANGUA** andreak: Sí, buenos días, señora Presidenta, miembros de la mesa, trabajadores y trabajadoras.

En el Pleno de Control del 26 de mayo, a iniciativa del grupo EH Bildu, trasladamos a este parlamento el debate sobre el modelo de gobernanza que impulsa la Diputación Foral de Bizkaia.

Por undécima vez trajimos al centro del debate 40 años después, la necesidad de un nuevo modelo de gobernanza, con una mayor urgencia que nunca, ahora que está a punto de comenzar la resaca de esta terrible pandemia.

Hemos presentado a la Diputación Foral de Bizkaia la siguiente moción derivada de interpelación:

1. Que impulse un modelo de gobernanza colaborativa, basado en la colaboración y el consenso entre diferentes, con el fin de alcanzar un consenso lo más amplio posible a favor de las políticas públicas.

2. Que, dentro de ese modelo colaborativo de gobernanza, abra cauces de participación ciudadana en los procesos de decisión y evaluación de las políticas públicas.

3. Que, de cara a la transparencia en la que se deberá fundamentar este modelo de gobernanza, complete el portal web Bizkaia Gardena, publicando los Planes y Programas de la Diputación Foral de Bizkaia, así como las evaluaciones, tanto anuales como finales, de dichos Planes y Programas.

He recogido la transcripción del anterior pleno de control y he sacado las claves o ideas principales del discurso entre el señor Rementería Maiz y yo.

Sarrera labor bat egin neban, eta Osoko Bilkura haretan agirian itxi neban lurralde honetako zaintza-politikak aspaldi huts egiten ebala eta egoitzetako langileek egin eben greba luzeak horixe erakutsi ebala. Pandemiak ez dau lehendik ez egoan kaosik sortu; areagotu egin dau, kolapsoa ekarri dau oso eskasa dan zaintza-zerbitzuan. Sistema hori aspalditik salatzen eben hainbat sektorek, besteak beste, guk geuk. Adinekoen egoitzetan gertatutakoaren adibide horretaz ari gara, gure ustez, gobernantza-eredu zaharkitu eta opaku baten paradigma zalako, eta gauzak txarto etorri diranean egiaztatu dalako enpresa pribaduei zaintzakaz negozioa egiten laguntzea ez dala idearik onena.

Resumí en mi discurso la constante solicitud de información que hemos hecho sobre esta cuestión una y otra vez, docenas de propuestas que hemos hecho por escrito y de forma verbal al gobierno foral, muy lejos de esa crítica destructiva que nos quieren atribuir.

En dicha transcripción del pasado pleno de control se reflejan unos ejemplos que utilicé para demostrar que es posible otro modo de gobernar, en los que se prioriza el entendimiento entre diferentes, la participación real de la ciudadanía a la hora de adoptar decisiones, en lugar de aparentar únicamente que se les da la palabra.

Eta bai, baterako gobernantza terminoa erabili genduan bai itaunaren testuan eta bai gure agerraldian be, eta zuk, Rementería jauna, horren erabilera barregarri baino ez zenduan itxi, oposizioa izanda ez zenduala ulertzen zer baterako gobernantzaz ari

ginan esan zenduan, eta termino horregaz azaldu egin behar genduala zer esan gura genduan esan zeunskun.

Adinekoen, desgaituen eta umeen gizarte-zerbitzu horreen kudeaketari jagokonez, Foru Gobernuaren eretxian, herritarren beharrak beteta dagozan bitartean, ez deutso ardua eurekaz negozioa egiten dauen baten bat egotea. Arabere gehiago, zeozelan gurago dau horixe. Egia da horretaz beste kasu batzuen inguruan be berba egin doguna, eta hasierako itaunak erakusten eban kasuetako bat Gallartako Laguntza Zentroarena zan, eta Gizarte Ekintzan nozonoz egin ahal izan dogu berba horretaz. Zentroa desgaitasuna daukienez zentro baten birmoldatzeak meatzaldea adinekoentzako zuzeneko kudeaketa publikoko plaza barik itxi dau.

Zeozelan, argudioa argia da: eskaria beteta dagoala eta ez dirala beharrezkoak. Baina, jakina, inori ez jako bururatu, ez da planteau irabazi-asmoa eukien enpresa pribaduakaz egindako hitzarmen edo enkarguak zirala berrikusi beharrezkoak. Sareko berrikusketak beti kudeaketa publikoaren, zuzeneko kudeaketa publikoaren kalterako egiten ete diran errezeloa daukat. Izan be, argi daukagu hori legezkoa eta legitimoa dana, baina funtzionatzeko modu hori lehentasunezkoa izatea da zalantzan jarten doguna, hau da, Bizkaiko persona ahulen beharrak betez negozioa egitea.

Kontua zera da, horri buruzko zalantzak eukiteaz gain, zentzun horretan benetan preminak modu egokian beteten ari ete diran be dudan jarten dogula. Adibide moduan ipini dodan meatzaldetik ez aldentzearren, Ortuellako egoitzako jenteak urte bi inguru daroaz astero urtetan euren lan-baldintzez kexetako. Beraz, zalantzak dagoz metodo hori lehentasunezkoa ete dan eta bere funtzinoa beteten ari ete dan.

Hori esanda, gizarte-arreta publikoagazko konpromisoa legitimoa dala eta onartu egin beharko litzatekela uste dot, eta horixe da ekimen honetatik ondorioztatzen dana. Gure taldean, behintzat, beti ulertu izan dogu hitzartzeak eta beragaz parekatu leitekezanak salbuespenezko elementuak dirala publikoak sartzerik ez daukan lekuetako beharrak asetzeko, edo une horretan publikoak emoterik ez daukan zerbitzu jakin batzuk emoteko. Hitzarmenaren erabilera sistematikoa ulertezina da, gure ustez; arabere gehiago funtsezko gaietan, hala nola zaintza-gaietan, gizarte-arreta kontuetan.

Zentzun horretan, nik ez dakit ardurabakokeria izango zan edo ez GUFEn lan osogarriztat jotea, baina hemen jokoan dagoana oinarritzko desbardintasun bat dala uste dot, hau da, Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea zer izatea gura dogun. Jakina, gure ustez, GUFEn ez dau Bizkaiko gizarte-arretaren komodina izan behar, haren funtsezko muna baino; horrelan ikusten dogu gaia, eta mozino honen alde bozkatuko dogu. Eta, gure eretxian, mozinoan agertzen diran 3 proposamen horreek hori lortzeko lagungarriak izan leitekez.

Itaunean GUFEn daukan zeregin osogariaren inguruan esan zana gehiago argitu leiteke, baina gauza bat ezin da gehiago argitu, eta zera da: azken urteotan, eta datuak agirian dagoz, ez dirala berrikusten hitzarmenak, enpresa pribaduei egindako enkarguak, ezta egoitzan meteoritoren bat jausten bada be.

Meatzaldetik urten barik jarraitzen dot. Pandemian zehar Marcelo Gangoitiren kasu tamalgarria haren adibide argia da. Gaur ez dot berba egingo senideen erreklamazioei buruz, ezta zelan hartuko diran kontuan gizarte-laguntzako eredu barrirako be, baina aitatu beharko da mozinoaren hirugarren zatia, hori be interesgarria dalako, gure ustez.

Mozinoaren hirugarren zatia GUFEn barruan E kategoriari egiten deutso aitamena. Hori, hain zuzen be, enpresa-batzordeak jakinarazo euskun Batzar Nagusietara agertu zan une baten. Izan be, susmoa da GUFEn bide bat hartzen ari dala erakunde teknifikatua edo espezializatua izateko gehiago, eta gerora alde batera itxiko leukezala edo

kanpora aterako leukezala edozein jarduera espezialista edo edozein jarduera tekniko eregiteko oinarrizko lan horreek. Jakina, uste dot hemen be jokoan dagoan arazoa ze GUFEn eredu gura dogun dala, eta arreta integral eta integratu moduan ikusten dogunok oinarritik abiatu daitela eta teknikoagoak diran beste zeregin batzuetara heldu daitela ulertzen dogu, guztiak hartu beharko leukez kontuan.

Geratzen diran agerraldiak arretaz entzungo doguzala uste dot, baina, gure eretxian, arlo publikoaren aldeko apustua da, edo GUFEn ze leku eukitea gura dogun bihar-etzi Bizkaiko gizarte-arreta eredu. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Fernández Medrano. El representante del grupo Socialistas Vascos, señor Otermin Eraso, tiene usted la palabra.

El Sr. **OTERMIN ERASO** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta.

Euskal Herria Bilduk eskatzen deusku Foru Aldundiari GUFEn kudeaketa publikoko plazak ez murrizteko eskatu degiogu, Adinekoen Zerbitzuan plantilla handitzeko eta orain arte langile publikoakaz garatzen izan diran zerbitzuak ez azpikontratetako konpromisoa hartu dagiala.

Hasteko, zera argitu gura dogu: Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea, GUFEn, izaera administratiboko foru-erakunde autonomoa dala, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Araubide Ekonomikoari buruzko urriaren 14ko 10/97 Foru Arauaren 4.2.b artikuluan ezarritakoaren arabera eratu eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailari atxikia, deszentralizazio funtzionaleko erregimenean.

Erakunde horri jagokoz Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Euskal Lege lurralde historikoetako organoetarako zehazten dauzan jardun-arloetan eta eskumen-esparruetan berriazko programak gauzatea eta zerbitzu publikoak sustatzeko, emoteko eta kudeatzeko jarduerak egitea, eta Bizkaiko organoek agindutakoak.

Jarduera-programa horreek Bizkaiko Foru Aldundiaren ebazpen baten bidez zehazten dira eta GUFEn agintzen jakoz. Ebazpen horrek esleitutako eginkizunaren eta eskumenaren araubide zehatza ezarten dau.

Horren haritik, GUFEn xedea da arreta integrala eta personalizatua eskaintzea Gizarte Ekintza Sailak agintzen deusazan persona guztiei, eta, batez be, premia konplexuagoak daukiezanei. Horretarako, kalidadezko gizarte-zerbitzu eta gizarte-baliabide espezializatuak eskaintzen eta bermatzen dauz, eta horreek erabiltzaileei ezeze euren familiei be bizitza duina eukiten laguntzen deuse, ingurune egoki baten euren eskubideak erabilten eta euren gaitasunak garatzen lagunduz.

Eta bere helburuen artean honako honeek azpimarratu geinkez: erabiltzaileen eta euren familien arreta eten barik hobetzeko zerbitzu-zorro arin, eraginkor eta iraunkorra finkatzea, erabiltzaileen eskubideen errespetua eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorra bultzatuz; profesionalen kualifikazioa indartzea; ezagutzaren kudeaketa eta sortutako ezagutza partekatzea bultzatzea; etenbako hobekuntza bultzatzea, eta baliabideen efizientzia eta erabilera arrazional eta jasangarria hobetzea.

2021eko ekitaldian egitea aurreikusten diran GUFEn lehentasunezko jardueri buruzko informazio guztia eta informazio garrantzitsua jasota dago erakundearen aurrekontu-memorian. Memoria hori erraz eskuratu geinke danok, eta hori horrelan da 2021tik

hona.

Joan dan maiatzaren 26ko Osoko Bilkuran, Murillo jaunak erantzun egokia emon eutsen egin jakozan galdera guztiei. Ortuellako eta Mundakako zentroez egin eban berba, baita Santurtzikoaz be. Era berean, Gizarte Ekintzako hainbat Batzordetan deskribidutako gizarte-zerbitzuez, Bizkaiko gizarte-zerbitzuen mapaz eta zerbitzu-zorroaz egin eban berba. Eta GUFeko zentro batzuen bilakaera be gogorarazo euskun, baita pandemian ezarri diran neurri batzuen be.

Nire taldearen ustez, argi geratu zan GUFEk gure lurralde historikoko gizarte-zerbitzuetan beteten dauen eginkizun osogarri eta funtsezkoa. Gizarte-zerbitzuen sarean ez dagoana kudeaketa zuzeneko zentroen bidez itundu daiteke, eta zentro horreek guztiak GUFeri atxikituta dagoz. Horri esker, bere balioaniztasunari esker, pandemian zehar aukera egon da Birjinetxe eta Santurtziko zentroak zabaltzeko, NBEak hornitzeko edo PCRak egiteko, Osakidetzaaren tutoretzapean txertoa jarteko, beste zentro batzuetan sektorizazioa bultzatzeko. Ahalegin ikaragarria denpora errekorrean, eta testuinguru ezezagun baten. Izan be, bidezkoa da hori aitortzea eta GUFeko langile guztiei publikoki eskertzea. Horixe da sare oso zabal baterako hain berezia dan tresna baten funtzioa, eta tamainan zeregin txikia daukan arren, kualitatiboki funtsezkoa da.

Halanda ze, premia sozial larri eta aldakorrei erantzuteko aitzindaria dan ezker, GUFek beti jarraitzen dau erantzuten, baita pandemian be, eta etorkizunean be erantzungo dau, baina horretarako eraldatzen jarraitu behar dau. Horixe da Erakundearen eginkizuna, eta horrexek izan behar dau Gobernu honen eginkizuna. Izan be, gaurko eta etorkizuneko beharrei erantzuteko bokazioa besterik ez dago.

Eta Mendekotasun Legearen, Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen eta ETELen arabera onartzen badogu laguntzak personetara egokitu behar dirala, eta ez alderantziz, eta gure erakunde guztiak koordinatu egin behar dirala horretarako, eten barik berrikusi behar doguz emoten doguzan erantzunak. Horregaitik, Bizkaiko personek daukiezan premia- eta laguntza-profilak erreferentziatzat hartuta, zentroen sarea horretara egokitu behar dogu, eta ez alderantziz. GUFE sare horren zuzeneko kudeaketaren parte da.

Eta bere agerraldian, Murillo jaunak Bizkaiko gizarte-zerbitzuak norantza doazen be azaldu euskun, eta gaur egungo gizarte-zerbitzuen zabaltzeaz egin eban berba. 100 plaza gehiago behar dirala adierazo eban desgaitasuna daukien personentzat; izan be, adineko personen esparruan, gaur egungo beharizanetarako nahiko hornidutako sarea daukagu. Eta, proiektzio demografikoak kontuan hartuta be, Bizkaia dotozan urteetan erantzuteko behar diran adinekoentzako egoitza-azpiegitura sozialak ditu.

Atsedenerako berariazko plazak behar dira, neurri txikiko zentroak, Bizkaian desgaitasunean ohikoa dan moduan. Eta, beraz, ehun plazatarako 3 edo 4 zentro aitatu beharko geunkez: 33 Mundakan, 25 Santurtzin eta 42 Gallartan.

Era berean, bizikidetzaren unidate txikiago eta balioaniztasunagoetan oinarritutako laguntza-eredu baterantza jo behar dala esan euskun, eta horregaitik ordezkapentasak izan ebazan berbabide. Gaur egun 881 lanpostuk osotzen dabe GUFeko plantilla, eta orain desgaitasuna daukien personentzako 100 plaza barri horreek sortzeko fasean dagoz.

Amaituko dot. Ez dogu mozino hau babestuko, gure ustez, erantzunkizunez eta Mendekotasun Legea eta Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Legea errespetata, ahalegin handia egiten ari garalako gizarte-zerbitzuak emoten, baliabideak egokitzen, prestazioak ezarten eta plantillak sendotzen eta zabaltzen, baina errealidade tematiak ezarten deuskun erritmoan. Nada más, muchas gracias.



La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Otermin Eraso. Y la representante del grupo Nacionalistas Vascos, señora Gómez Devesa, tiene usted la palabra.

La Sra. **GÓMEZ DEVESA** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta, buenos días a todos y a todas.

EH Bildu taldeak aurkeztu dauen eta orain eztabaidatzen ari garan mozinoari jagokonez, gure eretxian, interesgarria litzateke testuinguruan jarteko ariketa bat egitea eztabaidagai ditugun proposamenak euren leku egokian kokatzeko; izan be, Gizarte Ekintzako ahalduen jaunak gai horreei buruzko informazio osoa batzordeetan emon badeusku be, beharrezkotzat jotzen dot gogoeta-ariketa bat egitea, kontuan hartuta gure proposamenak gizarte-errealidadeagaz lotu behar doguzala, gizarte-zerbitzuak Bizkaian bizi garanon errealidadera egokituz eta ez alderantziz, eta betiere, Fernández jauna, beharrianetara erantzuteko helburutik abiatuta. Hori da kontua, beharrianetara erantzutea.

Ganbera honetan askotan azaldu da Bizkaiko gizarte-zerbitzu horreen egoera, eta etorkizuneko beharrianetara aitatu dira. Joan dan garagarriaren 24ko batzordean ahalduenak berak Bizkaiko gizarte-zerbitzuen maparen eskema bat egin eban, eta, adinekoen esparruan, emondako datuek adierazoten euskuen laguntza-sare bat daukagula Bizkaiko egungo eta etorkizuneko beharrianetara erantzuteko gai dana. Arabere gehiago, Bizkaiak 2.000 plaza baino gehiago daukaz eguneko zentroetan, eta ez dira 1.300ra heltzen beteta dagozan plazak; gainera, autonomia personala sustatzeko 300 plaza be badaukaz, eta 600 adineko baino gehiagori emoten deutsee erantzuna.

Beste alde batetik, mendekotasun egoeran dagozan adinekoentzako egoitzen sareak 10.745 plaza daukaz, baimendutako 155 zentroetan banatuta, eta gaur egun 8.600 erabilzaile dagoz plaza horreetan. Beraz, mezuak argia izan behar dau eta errealidadera egokitua. Bizkaiak adinekoen egoitza-sare bat dauka, oraingo eta datozen urteetako beharrianetara erantzungo deusena, eta hori, jakina, daukagun gizarte-babeseko sistema publikoaren barruan.

Baina garagarriean egindako agerraldi haretan, Murillo jaunak argi itxi eban gure lurraldeak etorkizun hurbilari berme osoz aurre egiteko azpiegitura sozialak euki arren, ahalegina egin beharko geunkela desgaitasuna daukien personentzako egoitza-plaza gehiago eukiteko eta zentroak etorkizuneko zaintza-eredura egokitzeko. Eta eremu horretan igarten da ahalegina egin behar dala datozen garaietan, 100 plaza gehiago eukiteko.

Halanda ze, alde batetik, adinekoen egoitza-sarea gaur egungo eta datozen urteetako beharrianetara egokitzen da, eta, beste alde batetik, ebaluazioaren emaitzek adierazoten dabe komenidu dala desgaitasuna daukien personentzako egoitza-zentroetan plaza gehiago sortzeko ahalegina egitea. Hain zuzen be, Murillo jaunak 100 plaza horreek atsedenerako berariazko plazak izan behar zirala zehaztu eban, eta neurri txikiko zentroetan egituratuta egon behar zirala, Bizkaian desgaitasunean ohikoa dan moduan.

Beraz, ehun bat plazatarako 3 edo 4 zentroz ari gara, eta badakizue GUFEn erantzun-sare horren parte dana, erantzun horren zati garrantzitsu bat, zuzeneko kudeaketaren zatia, hatan be.

Eta egoera azaletik azaldu ondoren, ikusi daigun orain zer aukera daukagun horri heltzeko eta zelan erantzun leikion horri, indarrean dagoan legeriari egokitutako erantzuna, jakina.

Eta hortxe dago oztoporik handiena; izan be, lege-testuinguruak ez deutso

GUFeri aukerarik emoten plantilla handitzeko 2011tik gaur egun arte, aurrekontu-lege desbardinak tartean diralako. Izan be, Estatuko Aurrekontu Orokorrek murriztu egiten dabez plantillak eta enplegu publikoaren eskaintzak 2011tik gaur arte. Oinarrizko lege-egoera da; izan be, Espainiako Konstituzinoaren 149.1 eta 156.1 artikuluen babesean, bideratu egiten dira defizit publikoa murrizteko helburua eta Europar Batasunagaz zerga-konsolidazinarako konpromisoak, aurrekontuen legeetako zioen azalpenetan aurreratutako moduan. Hain zuzen be, 2021. urterako sektore publiko osoan enpleguari ezarritako mugak batez be Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 11/2020 Legearen 18. eta 19. artikuluetan jasota dagoz.

Birjartze-tasari jagokonez, Duque andrea, egon leitekezan lanpostu hutsetarako apliketan da, eta Legeak ixten dauen % 110eko birjartze-tasa apliketan jarraituko da, baina ez da ahaztu behar lehendik sortuta egozan plazak dirana; ez dira sortu barriztat hartzen. Beraz, lanpostu hutsak beteteko aukera emoten dau, baina ez plaza barriak sortzeko.

Halanda ze, oraingo testuingurua honakoa da: alde batetik, GUFeko plantilla publikoa handitzera bideratutako edozein ekimen gelditu eragiten dauen legezko ezintasuna eta, beste alde batetik, Bizkaiko sareari mendekotasuneko egoitza-plaza gehiago emoteko beharra.

Egoera horren aurrean, desgaitasun-egoeran dagozan personen egoitza-eskaintzari erantzuteko helburua lehenetsiz, Bizkaiko gizarte-babeseko sistemaren barruan egin ahal dana egokitzea ebatzi da. Hau da, indarrean dagoan gaur egungo legedia errespetauko dauen egokitzapen bat egitea ebatzi da, GUFeko langileen egungo plantilla errespetauko dauena, adinekoen egoitza-plazen kopurua errespetauko dauena eta desgaitasunen bat daukien personen egoitza-plazak handituko dauena.

Gure ustez, Aldundiak erantzun globala emoten deutso azaltzen dan egoerari eta bere erantzukizunen eta eskumenen barruan eta legezko eskakizunen arabera azaltzen dau barriro eta egokitzen dau, eta birdoitze horreek plantilla errespetauta egiten dira, adineko persona bakotzak Bizkaiko Foru Aldundiak emoten deutsan sistemaren barruan bere lanpostua lortzeko aukera euki dagian, behar dauenean. Plaza horreek kudeaketa publikokoak edo itunpekoak izan leitekez, eta ahalegina sustatu behar da desgaitasuna daukien personek behar dabezan plazak euki dagiezan behar daben uean.

Beste alde batetik, ekimenaren azken puntuari jagokonez, gure eretxiz, plantilla handitzea ezinezkoa dan ezkerro, GUFEk egokitu egin behar dauz Erakundearen laguntza-bokazinoa ondoen asetzen daben horreetara eta erabiltzaileen arretara bideratzen diranetara.

Horri jagokonez, nire ustez, interesgarria da esatea gaur egun GUFeko plantilla kualifikatuago dagoala, kualifikazio eta ordainsari handiagoko lanbide-kategorietara barne-sustapena egiteko aukera eskaini dalako eta eskainiko dalako. Eta, horren haritik, Murillo jaunak maiatzaren 26ko Osoko Bilkuran jakinarazo eban moduan, 3 prozesu garatu dira. Barne-sustapenerako aukera emon da, lekualdaketarako aukera emon da, eta, beste batzuetan, kontratuak barriztetako aukera egon da, inor kaltetu barik, inor be ez.

Amaitzeko, gure ustez, EH Bilduk ekimen honetan aurkezten dauen azalpena ez litzateke legezkoa izango adierazo dogun guztiagaitik, eta, beraz, indarrean dagoan legeriak ahalbidetzen dauen heinean, uste dogu beharrezkoa dala Bizkaiko herritarren beharriaz erantzutea, Fernández jauna. Horren ondorioz, helburu hori lortzeko, eta seguruenik ganbera honetako kide guztiok partekatuko dozue, beharrezkoa da gure esku dagozan tresna guztiak egokitzen jarraitzea, GUFEn, esaterako. Azaldutako guztiagaitik, gure taldeak ez dau proposamen hori babestuko. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Gómez Devesa. Y pasamos al turno de réplicas. Para ello, la representante del grupo EH Bildu, señora Duque Santacoloma, tiene usted la palabra.

La Sra. **DUQUE SANTACOLOMA** andreak: Hola de nuevo. Beharbada amaieratik hasi naiteke, antza danez, Euzko Alderdi Jeltzaleko bozeramaileak adierazotakoaren arabera, ekimen hau babesteko oztoporik handienetako bat lege-egokitzapen batetik, edo legea egokitzeko zailtasun batetik datorrelako, Estatuko Aurrekontu Orokorreraren Legetik, hatan be. Nik birjartze-tasari buruz egin deusat berba, hementxe daukat, artikulua hori, 19. artikulua jasotzen dauen Estatuko Aldizkari Ofiziala inprimidu dot, eta lehenengo puntu honako hau dino: "Langile berriak, sartu berriak, sektore publikoan harreman mugagabea dutenak, lehenengo sektoreetan birjarpen-tasa % 110ekoa dutenak". Lehenengo sektoreak, hatan be, gizarte-zerbitzuen erabiltzaileei laguntza zuzena emoten deuseen langileak dira.

Esan dodan moduan, egia da 2011tik Alderdi Popularrak Arrazionalizazio Legea aplikatu ebana erakunde publikoetan, sektore publikoan, eta horrek oztopo handiak ekarri ebazan langileak kontratatuko, baina aurrerapausuak emon dira. Edozelan be, argitu ahal izango dogu ea benetan kontratazino segurua egin leiteken Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen, seguru nago. Ez dakit gero Juanegaz berba egiteko aukerarik eukiko dodan, badakit-eta sano ikuspegi berezia daukana, asko ezagutzen dauelako legezketasuna, legee eta legezketasunari jagokenez beti irakasten deusku asko; zentzun onean, Juan.

Edozelan be, lehen Alderdi Popularraren proposamen bat eztabaidatzeko aukera euki dogu, eta gure taldeak puntuak berezita bozkatzea eskatu dau. Itxura baten gure proposamenaren kontra bozkatuko daben taldeei gogorarazoten deusat aukera hori be badaukiela, puntu batzuen alde eta beste batzuen aurka bozkatzeko.

Halanda ze, zailtasun hori, lege-egokitzapena, alde batera itxi geinke eta beste puntu bietan zentrau geintez; izan be, uste dot Elkarrekin Bizkaia taldeko bozeramaileak oso argi azaldu dauen moduan, puntu bi horreek sistema publikoa finkatzea eskatzen dabe, kasu honetan Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen, haren plantilla, langileak eta adinekoentzako egoitza-plazak. Lehenengo puntuak berriaz eskatzen dau hori, adinekoentzako egoitza-plazak ez murrizteko. Ez dakit zer arazo euki leikien kasu honetan Euzko Alderdi Jeltzaleak eta Alderdi Sozialistak puntu hori babesteko, kudeaketa zuzeneko adinekoentzako egoitza-plazak ez murrizteko, hain zuzen be.

Joan dan maiatzeko Osoko Bilkuran esan neban: Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen bidez kudeatzen ziran 3 egoitza geunkazan, kudeaketa publikoagaz. Bat galduko dogu; bi geratzen jakuz. Gizarte Ekintzako ahalduak esandakoa berbaz berba jarraitu ezker, ondo jaso deuskuzu aktaren transkripzioan, Juan, egun haretan ahalduak esandakoa, Sergioren berbak hareexek izan ziran: "Sektore pribaduan hitzartu ezin badogu osogarria da Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen". Niri baieztapen hori oso kezkarria iruditzen jat, horrek Bizkaian adinekoentzat geratzen jakuzan kudeaketa publikoko bi egoitzak laster desagertuko dirala esan gura dauelako, esan dozuen moduan, erabiltzaileen beharrezanetara egokitu behar bagara; baina nik neure buruari zera galdetzen deusat, erabiltzaileen beharrezanetara edo enpresaren eta merkaduen beharrezanetara ete diran, zuok eraldaketaz egin dozuelako berba, baina ez dinezue handitzea edo sendotzea, eraldaketa baino.

Plantillako behargin-kopuruari eusten jako, eta ustezko lege-muga horri heltzen deusagu, baina sarea be eraldatzen ari gara, eta lehen esan dodan moduan, sektore pribaduentzat momentuz erakargarria ez dan merkadu batera joaten ari gara. Hau da, erakargarria dan sektorea, adinekoentzako egoitzak, hatan be, urtez urte pribatizetan joan dira, eta orain Aldundia hondino merkadu pribadua sartzen ez dan eta ekonomikoki hain mamitsua

ez ei dan sektoreaz arduratzen da.

Halanda ze, guk barrero dinogu sistema publikoa defenditzen dogula. Gure ustez, apustu egin behar da, ez GUFEn eraldatzearen alde, eta hori be errealidade barrien aldatetara egokitu beharko da, baina eraldatzeaz gain, gizarte-babeseko sistema publiko osoa handitu eta indartu egin behar da. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Duque Santacoloma. El Grupo Mixto no intervendrá. El representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, señor Fernández Medrano, tiene usted la palabra.

El Sr. **FERNÁNDEZ MEDRANO** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta, hola de nuevo. Tira, hara, ni ez naz maliziabakoa. Lehen esan dodan moduan, nik ulertzen dot eztabaida honen atzean dagoana, edo eztabaida honen oinarrian dagoana ez dala Bizkairako gura dogun gizarte-arretaren eredu bakarrik, ezpada GUFEn bertan euki leiken lekua. Beraz, nik eztabaida hau dramatismo barik bizi dot, baina horretaz eretxi desbardinak eukitea erakunde politiko desbardinak izateagaitik dala esan gura dot.

Otermin jaunak GUFEn definizino bat irakurri deusku, ederra barriz; baina, nire ustez, esaterako, orain aitutzen ari nazararen bidetik, batzuetan definizinoaren amaiera-ohar horrek jarrera desbardinak hartzeraz eroaten gaitu esaten nenbilen gai horretan, hau da, baliabideen kudeaketaren eta erabilera jasangarriaren gaian. Nire eretxiz, garrantzitsua da jakitea zer pisu emoten deusagun eztabaida orokorraren barruan, zer gizarte-arretako eredu dagoan.

Desgaitasuna daukien 100 plazena aitatu da, hau da, hemen inork ez dau zalantzan jarri hori beharrezkoa ez danik. Hau da, uste dot bat gatzala Murillo jaunak planteau dauzan kalkulu guztiakaz, beharrezkoak ziralako. Baina premia barri hori beteteko birformulau, berregokitu eta malabarismoak egitearen kontu horregaz guztiagaz, jentea kontratatuko legezko ezintasun horretan batzuetan eroso sentitzen zariela emoten dau, eta horrek harritu egiten nau. Horixe da nik munean ikusten dodan kontua.

Kezkatu egiten nau, era berean, gizarte-zerbitzuen sareaz entelekia bat lez berba egiteak; izan be, batzuetan emoten dau gizarte-zerbitzuen sareak esaten doguzanean egoitza pribaduen kudeatzaileez bakarrik ari garala, eta hori arazo bat da. Hau da, GUFEn gizarte-zerbitzuen sarearen parte da. Batzuetan kontu horretan engainau egin ahal garala uste dot, Murillo jaunak ekarri eban zeregin osogarriaren kontu horretan.

Edozelan be, GUFEn sarean daukan zeregin funtsezkoa baina txikia aitutzen zan. Nik jarraitzen dot pentsetan GUFEn eginkizun txikia ebatzi politikoa dala, eta, horren haritik, daukagun errealidade soziala ixten dogun errealidade soziala dala, eta horretan Foru Gobernuak erantzukizun bat dauka.

Hori esanda, uste dot itaunetik eratorritako mozino-proposamena honako honetan laburbildu leitekela: GUFEn seguruenik merezidu dauen lehentasuna eta zentraltasuna emotea, etorkizunari begira, esan gura dot. Hau da, zera esan gura dot, ez dinogula GUFEn funtsezko zeregin bat beteten dauen zeozet moduan ez hartzeaz, atoa sortu eta erabili behar doguna, ezpada etorkizuneko planetan lehentasun handiagoaz kontuan hartzeaz.

Edozelan be, hori Gizarte Ekintzan eztabaidatzen jarraitu geinke, eta nik argituko neuke 3 puntu horreen alde bozkatuko dogula, gure ustez, egokiak diralako. Besterik ez.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Fernández Medrano jauna. El representante del grupo Socialistas Vascos, señor Otermin Eraso, tiene usted la palabra.

El Sr. **OTERMIN ERASO** jaunak: Eskerrik asko, Mahaiburu andrea. GUFÉ 1986an sortu zan, Eusko Jaurlaritzari eta Eusko Jaurlaritzak Bizkaiko Foru Aldundiari lagatako eskumenen transferentzia-prozesuen bidez. GUFÉk zerbitzu piloa eskaintzen dauz, eta transferiduta datozen beharginak eta zerbitzuak egoitza handietan dagoz. Haur eta Gazteen kasuan Loiu daukagu, Gabriel M<sup>a</sup> de Ybarra Urduñan egoan, Uribarrin 2 egozan, Familia Santuarena eta, bestea, Kristoren egoitza, lehenago Kristo deitzen eutsiena. Eta gero, hirugarren adinekoen egoitza handiak, Leioan, Txurdinagan, etab.

Eta transferitzen diran beharginen artean, batzuk funtzionarioak dira, eta beste batzuek lan-kontratu mugagabeak daukiez. Eta, jakina, funtzionatzen hasten da, hori guztia ordenau egin behar da, eta bidean hainbat lege-eraldaketa daukaguz. Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuei buruzko lehen Legea sortzen hasten da; gero 2008ko Gizarte Zerbitzuei buruzko Legea sortu zan, baina, ordura arte politika orokorra zera zan: “arreta emon ahal jakon guztia zentro handietara eroatea”, plaza asko egozalako eta zentroak baliabide bat eskatzen eben personakaz bete behar ziralako.

Baina 2006. urteko Mendekotasun Legea heldu zanean, abenduan, ezetz esan zeunskuen; ez, ez, hemendik aurrera ez dago preminarik baliabide bat personakaz estaltzeko, ezpada personak berak aukeratuko dau nora eta zelan joan gura dauen, baliabide bat behar badau. Eta personalizazioari ekingo deusagu, eta horrek ereduak berrikustera behartzen gaitu. 2000tik 2008ra, era berean, gorabehera bat daukagu; izan be, egoitza-plaza asko behar ziran, eta amortizazioaren truke eregi eikean enpresaren bat urte batzuek egoitzaren kudeaketaren aurka etortea proponidu eta baimendu zan.

GUFÉ beti izan da funtsezkoa, beti. Ez dauzala plantillak handitu esatea errealidadea ez ezagutzea da. Izan be, GUFÉk, 2000. urtean itxi nebanean, 715 behargin eukazan, eta gaur egun 881 ditu. Aurrera egiten jarraitzen dau, baina ez dau karraderan egin, erritmoak eta beharrak uztartu behar dauzalako. Eta gure tresnarik onena da unean-unean heltzen diran arazo larriei aurre egiteko, premina horreei erantzuteko ez dagoanean inor espezializatua edo inork ez daukanean baliabiderik artatzeko, eta hori GUFÉk egiten dau.

Nire agerraldian esaten neban moduan, pandemian zehar balio handia daukala eta gaitasun eta balioaniztasun handia daukala erakutsi dau. Beraz, hemendik txalotu egiten dodaz GUFÉko beharginak, ondo egiten jakin dabelako. Orain preminek gora egiten dabela kontuan hartu daigula esaten jaku, jente gehiago kontratatuko aukera areagotu beharko litzatekela. Inork ez dino kontrakorik. Mariano Rajoy jaunaren 2012ko Aurrekontu Egonkortasunari buruzko Legeak legezko muga bat ezarten dau, baina tartean beste errealidade bat be aurkitzen dogu; izan be, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 5. tituluan gizarte-zerbitzuen prestazioan lankidetzak publiko-pribadua dago, beti dinot hori. Baina, jakina, batzuetan uste dogu esku-hartze pribadua irabazteko asmoagaz dala, baina esku-hartze pribaduan gizarte-ekonomiako enpresak, hirugarren sektoreko enpresak eta irabazi-asmo bako erakundeak be badagoz, eta euren zerbitzuak eta bokazino-dedikazioa eskuzabaltasunez emoten ari dira.

Beraz, hori guztia ulertu behar dogu. Zer dinogu gaur egun? GUFÉ zaintzen eta babesten jarraitu daitela, tresna hori egokitzen jarraitu daigula, gure aitzindaria dalako. Arazo bat dagoanean, hortxe dago GUFÉ, baina ez da GUFÉ bakarrik, sare oso konplexua dalako, oso zabala; eta Murillok esaten euskun moduan, beharizanak dagozan baliabideetara egokitu beharko dauz, eta sektore pribaduko entidadeak sartu ezin diran horretan lehentasuna emon beharko jako GUFÉ joan behar izateari, bere betebeharra eta bere

bokazinoa dalako.

Nik uste dot tresna on bat daukagula, zalantza barik hobetzen joango dana, eta, beraz, gaur proposamenari ezetz esatea ez dau esan gura hobetzen jarraitzeko borondatearen kontra gagozanik, ezpada gure ordenamenduko legeak eta uneak kontuan hartu behar doguzala, errealidadea oso burugogorra dalako. Horregaitik amaitu dot lehen esaldi horregaz. Beste barik, eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Otermin Eraso. Y para finalizar con el debate, la representante del grupo Nacionalistas Vascos, señora Gómez Devesa, tiene usted la palabra.

La Sra. **GÓMEZ DEVESA** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta. Tira, bigarren txanda honetan eztabaidan agertu diran gai batzuk zehazten ahaleginduko naz. Duque andrea, erantzuna Bizkaiko herritarren beharretara egokitu da, eta gaur egun GUFEk desgaitasuna daukien personentzako hiru zentro barri kudeatzen dauz, eta bere lanpostu-zerrendan islatzen dan plantilla beragaz egiten dau (881 persona). Gainera, lanpostu-zerrenda Batzar Nagusi honeetan onartu da oraintsu. Horretaz gain, lanpostu-zerrendari jagokonez, mezuak argia izan behar dau: inor, langile bakar bat be ez da gelditu, edo ez da geldituko bere lanpostu barik. GUFeko lanpostu-zerrenda ez da aldatu azken 10 urteokaz edo gehiagotik, lehen azaldutako legezko errazoiakaitik.

881 behargin dira, izan dira, eta diranak dira, eta izango dira araudia aldatzen ez dan bitartean. Eta, hain zuzen be, Bizkaiko gizarte-babeseko sistema ikuspegi global batetik berregokitu gura da, Plan Estrategikoaren ebaluazioak detektau dauzan beharrei erantzuteko, eta berregokitze horren barruan, GUFeko plantilla bere horretan geratuko da.

Eta, gainera, gaitasun profesional handiagoko lanpostu barriak lortzeko aukera bultzatzen da, eta ahalik eta prestakuntza handiena daukien langile kualifikatuen arretari erreparatzen jako. Eta alkarrizketen bidez egiten ari da, gardentasunez, personetan ahalik eta eragin txikiena eukiteko, lekualdatzeak eta barne-sustapenak eginez.

Batzarrak eten barik egin dira GUFeko gizarte-ordezkarien eta zuzendaritzaren artean, gitxienez 36 azken urtean, Aldundiak egin dauzan orokorrak kontuan hartu barik. Eta hori aldi baterako barne-sustapeneko prozesuetan gertatu da. Horri esker, E taldeko beharginek goragoko kategoriako taldeetara igoteko aukera izan dabe, hobeto ordaindutako eta kualifikazino handiagoko taldeetara; lanpostuak beteteko lehiaketa prozesuak be egin dira, eta lanpostuak mantentzeko aukera be egon da, kontratuak barriztauta.

Eta bai, Euzko Abertzaleak taldean GUFeko langileek ahalik eta prestakuntza eta kualifikazino handiena eukitearen alde gagoz, eta lanpostu zerrendaren aldaketak horrantza bideratzearen alde.

Plantilla handitzeari jagokonez, eskainitako zerbitzuak areagotzen ahalegintzen ari garan heinean, ezin deusut galdetu barik itxi, Duque andrea, EH Bildu legea ez betetea proponiduten ari ete jakun; izan be, birjartze-tasa egin egiten da eta egiten jarraituko da, legeak baimentzen dauen % 110ekoa, legezkoa dalako. Baina larria izango litzateke legea ez betetea, hain zuzen be, zuen taldeak, EH Bilduk babestu eban legea, eta Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeaz ari naz. Horregaitik, legediagaz bat ez datorren planteamentu bat ekarteak harritu egiten nau, lege hori zuok, EH Bilduk, babestu zenduelako Espainiako Parlamentuan.

Eta, hirugarrenik, adinekoei arreta emoteko kudeaketa publikoko plazak ez murrizteari jagokonez be ez gagoz ados. Izan be, adinekoen egoitza-plaza publiko batzuk kudeaketa zuzeneko plaza publiko izatetik plaza itundu izatera pasetan dira, baina hori gorabehera osogai publiko handi bat eukiten jarraitzen dabe. Eta, beste alde batetik, zuzeneko kudeaketa publikoko 100 egoitza-plaza gehitu dira, desgaitasuna daukien personentzat beharrezkoak diranak. Eta ez eizue eskatu Bizkaiko personen beharriaz erantzuteari uko egiteko, GUFEn eraldatu egin behar dalako beharriaz horreei erantzuteko. Sistema sortzen ari diran beharretara egokitzen da, eta ez alderantziz. Eta GUFEn antolatzen joan behar dau, indarrean dagoan legediaren esparruan, herritarren beharriaz erantzuteko. Ezin dogu ahaztu, esate baterako, pandemiaren garairik gogorrean bete dauen zeregin garrantzitsua, Birjinetxe edo Santurtzi aktibau ebazanean. Benetako testuinguruaren arabera egokitu eta agertu zan barriro.

Eta, azkenik, behin baino gehiagotan atera da “estrategia” berbea, eta, estrategia bat egon badago, jakina; gure sistema hobetzen eta gaurkotzen jarraitzeko estrategia. Neurriara egindako egoitza-eredu baterantza bideratutako estrategia, etxebizitza baten ahalik eta antzekoena dan leku baterantza, eta berba estrategikoa “etxebizitza” izango da, bai “etxea” edo bai “egoitza”, baina beti be “etxebizitza”. Eta horixe da estrategia, benetan, ez eizue besterik ikusi.

Eta beste barik, azaldu dodan moduan, ez dogu proposamen hori babestuko. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Gómez Devesa. Y una vez finalizado el debate, debemos someter a votación la moción.

¿Votos a favor de la moción? ¿Votos en contra? ¿Abstenciones? El resultado es el siguiente:

Se han emitido 48 votos en total. Han sido 16 votos a favor, votos en contra han sido 32, y 1 abstención. Por lo tanto, no se ha aprobado la moción. A continuación, el punto sexto del orden del día.

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

6.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Moción derivada de Interpelación ([R.E.11/E/2021/0001864](#))

**Autor:** De Madariaga Martin, Eneritz (EB)

**Asunto:** Garantizar un alto nivel de calidad democrática en el funcionamiento institucional.

**Documento Principal:**

([R.E.11/E/2021/0001864](#))

**Boletines:** [Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas](#) (38A)

**Expediente:** ([11/B/20/0002455](#))

6.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

**Jatorrizko ekimena:** Itaunetik eratorritako Mozinoa ([11/E/2021/0001864SE](#))

**Egilea:** De Madariaga Martin, Eneritz (EB)

**Gaia:** Erakunde-funtzionamenduan kalidade demokratiko handia bermatzea

**Dokumentu Nagusia:** ([11/E/2021/0001864SE](#))

**Aldizkariak:** [Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea](#) (38A)

**Espedientea:** ([11/B/20/0002455](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Corresponde el turno a la juntera que ha presentado la iniciativa. Por lo tanto, señora De Madariaga Martín, tiene usted la palabra.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Muchas gracias, señora, buenos días de nuevo.

Lehenengo eta bat, tira, esan gura deusuet ez dakidala urgentziaz sartu dogun akatsen zuzenketa heldu jatzuen, baina tira, bestela, jakinarazo gura deusuegu mozinoaren lehenengo puntuan 27.7 artikulua aitazen zan puntuan 47. artikulua C atala aitatu gura genduala. Hori esanda, mozinoa aurkeztera noatzue.

Tal y como presentamos en el pasado Pleno de Control, en opinión de Elkarrekin Bizkaia el Gobierno de la Diputación Foral infringe a propósito sus obligaciones de comunicar en tiempo y forma a estas Juntas Generales, evitando de esa manera someter sus acciones al control político y de la ciudadanía. Ese hábito, además de dificultar la labor de control de los grupos de la oposición, demuestra la escasa calidad democrática de la institución foral.

Gaur ganbera honetara eztabaidatzeko dakargun mozinoaren helburua da Bizkaiko Foru Aldundia benetan erakunde demokratikoa izan daiten beharrezkoak diran neurriak ezartea. Horretarako, lehenengo eta bat, Foru Aldundiak beharrezkoak eta nahikoak diran baliabideak ipini daizala proponiduten dogu, eta sailetan beharrezkoak diran eraldaketak egin daizala, Bizkaiko Batzar Nagusiei behar dan informazioa eta laguntza emoteko betebeharra beteten dauela bermatzeko, 3/1987 Foru Arauaren 47. artikulua C atalean jasoten dan moduan.

Proposamen hori egiten dogu, hain zuzen be, Foru Aldundiko Gobernu ez dalako gai hori beteten ari, eta hori daborduko frogatu genduan itaunaren eztabaidan, eta, gainera, Foru Gobernuak ez eban guzurtan, eta adibide moduan erabili leitekez orduan emon genduzan datuak.

Gure taldeak idatziz egiten dauzan dokumentazio-eskaerei edo galderei jagokenez, % 44k ez dauka erantzunik, edo ez da erantzunik jaso, edo epez kanpo jaso da, kasuen % 73an barriro eskatu diran arren. Erantzun diran eskaeretatik, erantzunen erdietan baino gehiagotan, Aldundiak eskatutakoagaz bat ez datorren dokumentazioa aurkeztu dau.

Esa es la realidad, un ámbito normativo claro y que no cumple el Gobierno Foral, y como consecuencia de ello se cuestiona la transparencia y el nivel democrático del Gobierno Foral y de toda la institución. Sin embargo, la señora Etxanobe manifestó que el Gobierno Foral conoce las normas del juego y que las respeta, y eso no es verdad, tal y como hemos podido demostrar con los datos que hemos aportado. Sin embargo, es verdad que añadió dos elementos que no podemos dejar de lado. Por una parte, reconoce que existe margen de mejora y, por otra parte, que no resulta sencillo unir la propia gestión del Gobierno con las obligaciones de responder a las solicitudes de los grupos de la oposición. Eta horregaitik, hain zuzen be, zer hobetu badagoan ezkerero, eta gobernu honi bere gobernu-lana eta, aldi berean, oposizionoko taldeen eta herritarren eskaerei erantzuteko daukan betebeharra errazteko, Aldundiari beharrezkoak diran berrantolaketa eta eraldaketa horreek egin daizala eskatzen deusagu, agindu bi horreek bete ahal daizan.

Eta, bigarrenik, Foru Aldundiak erakundearen kalidade demokratikoaren maila ebaluau dagian tresna bat diseinatu dagiala proponiduten dogu. Horretarako, Bizkaiko Batzar Nagusiak eta gaian adituak diran beste gizarte-eragile batzuk izango ditu, kontuan hartu beharreko erespideak eta adierazleak ezarteko.



Foru Aldundiko Gobernuak gardentasunaren eta gobernu onaren irudia saltzen dau, baina irudi hori beti ez dator bat errealidadeagaz. Administrazio hau administrazio publiko gardenen sailkapenetako goiko aldean dagoala aitatzeara, Etxanobe andreak egin eban moduan, bakar-jokoan tranpak egitea da, informazio gehiago emoten ez bada. Foru Aldundia zein lurraldeagaz eta zein administrazioagaz alderatzen ari da? Zer adierazle darabilzue hori baiezteko?

Baina, gainera, ausardia da, kontuan hartzen badoguz nazinoartean adierazoten diran zailtasunak ebaluazino eta neurketa hori egiteko egokienak diran elementu edo adierazleak adosteko. Nazinoarteko hainbat erakunde dagoz, neurtzeko modu desbardinakaz. Economy Intelligence Unit horren indize demokratikoak 5 kategoria baloretan dauz: hauteskunde-prozesua eta aniztasuna, Gobernuaren funtzionamentua, parte-hartze politikoa, kultura politikoa eta askatasun zibilak.

Human Rights Centre dago, Essexeko Unibersidadekoa. Horrek auditoria demokratikoak egiten dauz, beste 5 dimensiotan oinarrituta: herritarrak, legeak eta eskubideak; ordezkaritza politikoa; gobernagarritasuna eta kontu-emotea; gizarte zibila, eta nazinoarteko alderdiak.

Beste neurketa-mota batzuk: gizarte-justiziako mailak, bardintasun-maila, ustelkeria-mailak, ate birakariak eta klientelismoa. Según cómo se mida tendremos diferentes experiencias, diferentes índices y, por lo tanto, diferentes resultados. Y ese es el reto, acordar los elementos para medir y valorar la calidad democrática de esta institución. En nuestra opinión, es la acción adecuada que debiera impulsar este Gobierno Foral y que fortalece el compromiso que tienen con la transparencia, la información y la democracia.

En tercer lugar, una vez haya realizado la Diputación Foral la evaluación de la calidad democrática de la institución y llevada a las Juntas Generales, proponemos que se trasladen los resultados obtenidos a un informe, que podrá ser válido para establecer las áreas de mejora en el contexto de Bizkaia, o para hacer un seguimiento de la evaluación del área de la calidad democrática de esta institución, entre otros aspectos.

Esta es nuestra propuesta, y hoy es el momento adecuado para pasar de las palabras a las acciones en el compromiso que esta Cámara tiene con la democracia. Por mi parte, nada más, quedo a la espera de su aportación. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora De Madariaga Martín. La representante del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, señora Fernández Angulo, tiene usted la palabra.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Eskerrik asko, Mahaiburu andrea.

Legegintzaldiak aurrera egin ahala, barriro dator tribuna honetara Batzar Nagusietan oposizioa osotzen dogun talde politikoon ekintzan protagonismo handiagoa hartzen ari dan gaia. Izan be, zeozer gertatzen ari da oposizio taldeok, bakotxa ikuspegi desbardinetatik, bat gatozanean gardentasun faltagaz, Aldundiaren gobernantzan beharrezkoa dan aldaketagaz eta Foru Gobernuak kontuak emoterakoan daukazan gabeziakaz, eta, aldi berean, oposizio taldeok egiten dogun ekintza ez erraztearren Gobernuak ipinten dauzan oztupoak salatzen doguzanean.

Proposamena egin dauen taldeak maiatzeko Osoko Bilkuran adierazo eban Bizkaiko gizarteak, orokorrean, gure Lurraldean dagoan kalidade demokratikoa positiboa

dala uste dauela, baina behin eta barriro adierazo eban, eta gu be bat gatoz, perzeptino hori neurri handi baten Foru Gobernu honek egiten dauzan marketin-ekintzakaitik zala; izan be, tribuna honetan horretara ohituta gaukazuez, hotsandiko hitzaldi astunakaz, eten barik gardentasuna eta herritarren parte-hartzea aitatzuz.

Eta, horren haritik, ezinbestekoa da hemerrotekara joatea eta gogora ekarte ahaldu nagusi jaunak orain dala 6 urte esandako berbak. Izan be, honakoa baiezten eban: “danok baloretan dogu gobernu batek lurralde batentzat daukan garrantzia. Hasteko, oposizioaren balioa aitortu gura dot; onartu, errespetau eta balorau egiten dot bere lana. Badakit gobernu on batek oposizio on bat eskatzen dauela. Gobernu on bat zuzendu gurako neuke; beraz, oposizio on bat opa deusuet”.

Egia esan, gatxa dala emoten dau horrelango adierazpen bat kritiketea. Itxi eidazue esaten asmoen adierazpen bat dala, bete-betean, arabere gehiago inbestidura-bilkura bezalako une berezi baten. Baina zera galdetu behar deusagu gure buruari, benetan sinistu leitekez berba horreek? Berba horreek, beste era batera esanda, errealidadean islatzen dira. Ba, oposizio talde guztion erreakzioa kontuan hartuta, horrek guztiak zalantza sortuarazoten deusku.

Eta, benetan, zein da Foru Gobernu honen benetako gardentasun-maila? Story telling eta markinetik harago, argi dago Gobernu honek bere diskursoan gobernantza on baterako identifikazio-terminologiaren menu osoa hartzen dauela bere gain, baina egia da be bai, gutako edonork kotoiaren proba egingo baleu ikusiko leukela diskursoa ez datorrela bat egiten danagaz.

Integritadea indartu behar dogu, benetan sinistu gardentasunean eta kontu-emotean, eguneroko egiteko publikoan be sano ahaztuta dagozan bi esparru. Demokrazia baten, oposizioa Gobernu baizen funtsezkoa dan elementua da, beti da mesedegaria oposizioa eukitea, gobernu-ekintzaren ikuspegi murriztaile eta egoista batetik be bai. Izan be, gehienetan ezarritako ustearen aurka, oposizioaren edo oposizio parlamentarioen berezitasunetako bat, hain zuzen be, lankidetzan aritzea da, edo hobeto esanda, Gobernuari eusten deusan gehiengoagaz adostasunak ezartea, gizartearen ongizate handiagoa lortzeko.

Hori dala-ta, oposizioetik ez dogu ahaztuten zein dan gure zeregina, argi dago, baina uste dot Gobernuak, zuok, ez dozuezala zuon betebeharrak saihestu behar, eta ez dozuela ziurtatu behar gobernu honek egiten dauen guztia kalidade demokratiko nahikokoa dala. Ez dau emoten zuzena, arabere gitxiago sinisgarria.

Amaituko dot. Gure ikuspuntutik, ekimen honetan azaldutako argudioakaz bat gatoz, arabere gehiago, akordio-proposamenak berez betebeharra dana ekarten deusku gogora, hau da, legea betetea, eta, beraz, ezin izango ginatke gehiago ados egon; Foru-erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubideari eta Funtzionamenduari buruzko 3/1987 Foru Arauaren 47.c artikulua betetea proponiduten ari gara, hatan be, eta bertan honakoa agertzen da: Foru Aldundiak eta bere kideek, Batzar Nagusien Arautegiak ezarri ahal dauzan araei kalte egin barik, Batzar Nagusiei behar daben informazioa eta laguntza emon beharko deutse. Hain zuzen be, ados egotea baino ez daukagu. Eta proposamenaren 2. eta 3. puntuei jagokenez be, erakundearen kalidade demokratikoaren ebaluazinoan aurrera egiteari, aztertzeari eta gehiago sakontzeari interesgarria erexten deusagu. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Fernández Angulo. La representante del grupo Socialistas Vascos, señora Gil Llanos, tiene usted la palabra.

La Sra. **GIL LLANOS** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta, buenos días a todos y a todas.

Foru Gobernuak oposizinoko taldeen kontrol-lana oztopatu egiten ei dauelako demokrazia hondatu egiten dauela oinarrian hartuta, Elkarrekin Bizkaiak gure kalidade demokratikoa aztertzeko eta hobetzeko beste tresna batzuk sustatu daiguzala eskatzen deusku. Eta, hasteko, demokratikoki oso ariketa osasungarria dala uste dodala esango dot, hau da, erakunde lez gure funtzionamentuaren ebaluazinoa egitea, beste gauza batzuen artean zelan dagoan azterzea, zelan dabilen, eta edozein demokraziatan botere legegilearen eta botere betearazlearen artean egon behar dauen oreka ete dagoan.

Baina gai hori testuinguruan kokatzeko aukera emon behar deustazue, erakundeen eta politika publikoen ebaluazinoaren diskursoak eragin handia daukan garaietan bizi garalako. Egia da, eta danok gura izaten dogu hori, baina aurreko Osoko Bilkuran eta gaurko honetan be proposamena egin dauenak berak aitortzen eban moduan, demokraziaren kalidadea neurtzea benetan be gai konplexua da, eta nik esango neuke ez geunkela ganora barik berba egin behar horren inguruan.

Hara, zeozeren kalidadeaz berba egiteak ebaluazino-eskema orokor baten datu enpiriko batzuk alde zehaztutako arau-eredu batez kontrastatu ahal izate dakar. Eta kudeaketan bertan eredu hori agirikoa izaten da honakoen arabera: zenbakizko helburu jakin bat, efizientzia hobea, kostua-onura, itxarote-denpora hobea, konpondutako kasuen arabera, etab., baina demokraziak hainbat deribatu ditu eta, beraz, ezinezkoa da eredu-modalidade deitu izan dana ez onartzea, eta ez dot luzaroan jardungo horretaz, ezta horretan sakonduko; gustauko litxakit jardutea, baina ez daukagu denpora nahikorik. Baina esango deusut demokraziaren kalidadea neurtzeak beti dakarrela beragaz dimensino anitzetan jardutea, hau da, adierazle asko erabili ahal izango geunkez, 60 dagoz nazinoarteko sailkapenetan, baina, ezin dogu esan ezelako zalantza barik adierazle horreetako bat beste guztiak baino garrantzitsuagoa danik. Eta hori dinot, zuok aurreko Osoko Bilkuran, gaur eta proposamenean erabili dozuen argudioan demokraziaren kalidadearen terminoa alderdi bakarrera murrizten dozuelako.

Zuon ustez, gure demokraziaren kalidadea sano txarra da, Foru Gobernuak eskatzen dozuen informazinoaren zati bat emoten deusuelako, arean atzeratuta, eta horrek Gobernuaren kontrol-lana oztopatzen ei dauelako. Eta, nire eretxian, baieztapen horregaz bi gehiegikeria egiten ari zarie. Lehenengoa, parlamentu-kontrolaren funtzinoaren monopolioa zeuoi emotea. Eta bigarrena, Gobernuaren kontrol-taldea aukera emoten daben figura asko dagozala ahaztutea: itaunak, mozinoak, agerraldiak, ahozko galderak, Batzordean eta Osoko Bilkuretan, azterketa-batzordeak, eta baita informazino-eskaerak be.

Eta horrek guztiak ondo funtzionatzen dau, aitatu barri deusudanaren inguruko kexarik ez dozuelako egin, dokumentazinoa eskatzearen kexa kenduta. Eta hortik guztitik zuok, estadistikak irakurri ezker, funtsean Sail bitatik jasoten dozuen informazinoan izaten diran atzerapenetara murrizten dozue gure demokraziaren kalidadea.

Ez al dozu uste gehiegikeria danik? Izan be, eta ekintzei eta datuei erreparau ezker, argitaratutako datu estadistikoek esaten deuskuena da Foru Gobernuak 1.310 kontrol-ekimen baino gehiagori erantzun deusela. Horreetatik 240 informazino-eskaerak dira, 359 idatzizko erantzunak, 197 ahozko galderak, eta 184 agerraldi-eskaera baino gehiagori erantzun deutse. Horrek argi ixten dau kontrol parlamentarioa bere osotasunean egin ahal izan dala, eta Gobernuaren horren esanetara jarri dala, bere betebeharra be izan dalako. Eta hori guztia, Covid gorabehera.

Beraz, Batzar Nagusiei jagokenez, 3/1987 Foru Arauaren 27.7 artikulua bete daigula eskatzen deuskuzuen, gero zuzendu egin dozuena 3/1987 Foru Arauaren 47.c

artikuluagaz, ia gauza bera esaten dauena, eta, gainera, jardun daigula tresna barriak sortuz eskatzen deuskuzuenan, zera esan behar deusut, Foru Gobernuak bete egiten dauela ganbera honi informazioa emoteko betebeharra. Eta onartuko deusut, lehen aitatu dodan moduan, 2 sailetan atzerapenen bat egon dala, eta barrero dinot, 2 sailetan. Atzerapen hori ez da izan borondate politikorik egon ez dalako edo ganbera honi ez deusagulako errespeturik, ezpada unean uneko traba teknikoren bategaitik, eta hori azertu eta zuzendu egin beharko da hobetzen jarraitu daigun.

Beste alde batetik, aurreko Osoko Bilkuran Etxanobe andreak esan eban moduan, Foru Gobernuak daukaguzan arauak errespetau eta bete egiten dauz, hoba ez! Horregaitik, konpromiso sendoa dauka gardentasunagaz, informazioagaz, parte-hartzeagaz, kontu-emoteagaz; horreek, esan dodan moduan, gure arauetan oinarritzen dira, baina arau horreetatik harago doaz. Eta horrek, urtez urte, Foru Gobernu Espainiako administrazio publiko gardenenena sailkapeneko lehen postuetan agertzea ekarri dau. Eta azterlan horreek ez dauz Bizkaiko Foru Aldundiak babesten, azterlan horreek independenteak diralako. Zure agerraldian lehen egin dozun aitamenagaitik dinot, De Madariaga andrea.

Eta, halanda be, lanean jarraitzen dogu gure informazio-mailak hobetzeko, bai sarbideari jagokonez, bai edukinari jagokonez, bai formari jagokonez, eskuragarriagoa, errazagoa eta ulergarriagoa izan daiten; eta, aldi berean, formatu ireki berrerabilgarriak erabilten dira, eta horreek be, ezelako zalantza barik, informazioa demokratizetan laguntzen dabe. Gobernu irekiaz, kontu-emoteaz, partehartze-prozesuetaz berbetan jarraitu ahal izango neuskizue. Izan be, prozesu horreek egon badagoz, eta eragiten deusie, eta asko, gure demokraziaren kalidadeari. Halanda be, zoritxarrez, ez daukat horretarako astirik.

Baina esango deusuet, bai, orain arte azaldutakoak ez dauela eragozten kontrol parlamentarioa sakontzea eta haren funtzionamentua hobetzeko moduak bilatzea. Ziur nago hobetzeko tarte dagoana, baina ez zuok proponiduten deuskuzuenaren bidez. Lehenengo eta bat, datuakaz erakutsi deusudan moduan, ez dagoalako erakundearen funtzionamentu txarraren arazo orokorturik. Eta bigarrenik, behin eta barrero oztopatzen dauen ekintza bat egon ezkerro, gure arau-esparruak berak aurreikusten dauzalako ekintza hori zuzendu ahal izateko neurriak, kontrol-ekintzak areagotzen lagundu ahal deuskuen beste gai batzuez gain, gura izan ezkerro.

Amaitzeko, ez gagoz kalidade demokratikoaren gabeziaren aurrean, ezpada funtzionamentuan disfunzino baten aurrean, bereziki identifikauta dagoana. Halanda ze, neurtu daigun arazoa, zuzendu daigun eta ez daigun sortu horregaz gatazka artifizial bat, horrek ez dauelako lar laguntzen gure erakundeei prestigioa emoten, arabere gitxiago erakunde horreen kalidade demokratikoa hobetzen. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Gil Llanos. La representante del grupo EH Bildu, señora Urkaregi Etxepare, tiene usted la palabra.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andreak. Sí, muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos y a todas.

Aldundiak bere betebeharra beteten dauela inoan Begoñak, sailetan unean uneko atzerapenak dagozala eta, edozelan be, hobekuntzak egin leitekezala.

Yo les contaré cuál es el recorrido que debemos realizar para recibir la información y cómo la recibimos. Porque es verdad que recibimos la información, faltaría

más, pero ¿después de cuántas vueltas? ¿En qué plazos? ¿Y en qué formato?

Lo primero es eso, esa es la clave, cuándo y cómo recibimos la información solicitada.

¿CUÁNDO? Sobre todo en algunos departamentos, usted ha mencionado dos, yo creo que son más, a menudo recibimos fuera de plazo e incluso después de reclamar. Y tenemos que recordar que hace tres meses, en este pleno de marzo, el señor Sergio Murillo Corzo, diputado de Acción Social, debió de dar cuenta en esta Cámara por no haber facilitado la documentación que solicitó EH Bildu.

Era la primera vez que ocurría algo así. Hasta entonces nunca se había aplicado el artículo 13.3 de la Normativa de las Juntas Generales. Y llegamos ahí porque no era algo puntual; todo lo contrario, hemos vivido en estas dos últimas legislaturas actitudes obstruccionistas similares, especialmente del Departamento de Acción Social.

Y sin olvidar que cuando solicitamos 10 respuestas por escrito, recibimos las respuestas después de haber solicitado la Diputación una prórroga para responder, después de reclamar y tras solicitar que se convirtieran en respuestas verbales.

¿Es eso facilitar la información? Creemos que lo primero que hay que garantizar es que se facilite dentro de los plazos y por parte de todos los departamentos. Es lo primero que hay que subsanar.

Y la segunda cuestión es CÓMO recibimos la información.

- Algunos documentos nos los envían escaneados en formato imagen, por lo que son ilegibles.

- Además de las dificultades para su lectura, los documentos que están escaneados como imagen no se pueden reutilizar y, concretamente, en el artículo 4 de la Norma Foral 1/2016, de Transparencia de Bizkaia se recogen los principios, uno de los cuales es el principio de reutilización. Y ese principio no se cumple en la mayoría de los documentos que los y las junteras recibimos. En el caso del formato pdf, existe la posibilidad de escanarlo como OCR, en lugar de como imagen, y, de ese modo, puede reutilizarse. En esta era de la digitalización ¿no tiene la Diputación la opción de escanear como OCR? No lo creo. Y ese es otro de los aspectos a mejorar.

- Otro de los problemas que tenemos para recibir la documentación es que cuando se trata de documentos extensos, tenemos que desplazarnos allí mismo para poder verlos. No les diré cuántas veces he tenido que desplazarme a Ugasko.

¿Cuál es el criterio? Algunos departamentos envían la información, a pesar de que sea extensa. Otros te dicen que tienes que ir allí mismo a verla, y cuando vas, está fotocopiado, y entonces regresas con las fotocopias. ¿Por qué razón no la han enviado, si está fotocopiada? Es más, miras la documentación, una tabla excel, impresa. Es decir, ese documento existía en formato informático, y no nos lo han facilitado. Y el punto 8 del artículo 13 de la Normativa de estas Juntas Generales recoge que nos lo tienen que enviar de esa manera cuando exista en ese formato.

EH Bildu ha conseguido una vez en esta legislatura, a duras penas, que nos facilitaran la información en formato informático. Desde entonces solicitamos toda la documentación en formato informático. Veremos si nos la facilitan de esa manera. Pero, realmente, señora Gil, existe margen de mejora. Esto no es algo puntual. En algunos sitios, no en todos, no diré eso, pero en algunos departamentos existe una actitud obstruccionista. Y el

hecho de entregar los documentos en formatos que hagan posible su reutilización, eso, por lo general, se hace de esa manera.

El segundo punto de la moción es el diseño de un instrumento para evaluar el nivel de la calidad democrática de la Institución. La Diputación Foral de Bizkaia no dispone de tal instrumento; sí dispone de numerosos puntos para evaluar, pero en general no dispone de un instrumento de tales características.

Es cierto, y en esto estoy de acuerdo con la señora Gil, que existen diferentes indicadores que valoran distintos aspectos de la democracia, y resulta difícil medir qué es la calidad democrática. Pero hay que mencionar que entre todos los indicadores que existen, son muy pocos los que están establecidos o medidos a nivel de región. Existe el Indicador de la Transparencia de las Diputaciones, y es cierto que en 2015 la Diputación, la Diputación Foral de Bizkaia tenía 100 puntos, pero el último que he encontrado es el de 2015.

En el año 2020 he hallado otro indicador, el indicador de transparencia DYNTRA, en el que la Diputación Foral de Bizkaia alcanza 35,53. ¿Qué es lo que nos indica eso? Que existen diferentes maneras de medición, y que según cuál se utilice se obtienen diferentes puntuaciones. Eso es cierto, y hay que tenerlo en cuenta.

Pero se propone la creación de un indicador de la calidad democrática. Y en nuestra opinión, la calidad democrática es una cuestión que va más allá de la transparencia. La transparencia será un apartado, pero tendremos que analizar muchos más campos.

Y es verdad que también existen diferentes indicadores de medición de la calidad democrática y que no existe un acuerdo en cómo debe ser medida. Anteriormente se han mencionado algunos modos. Yo podría mencionar algunos otros y existen más, pero de todos esos indicadores solo he encontrado uno.

Que el indicador de Europa de la calidad de gobierno sí existe a nivel de autonomía. Pero a nivel de Bizkaia, a nivel de región, no consta dicho indicador. Y, entonces, entiendo que primero necesitamos un instrumento como ese en Bizkaia; que primero deberemos debatir sobre cómo medir la calidad democrática, y luego tendremos que intentar definir un indicador. Creo que la moción plantea en estos momentos poner en marcha ese proceso. Y, además, se plantea cómo hacerlo: las Juntas Generales de Bizkaia, junto con expertos en la materia y otros agentes sociales, y una vez realizado, presentar un informe.

En nuestra opinión, la creación de forma conjunta de un indicador de tales características de la calidad democrática puede constituir un instrumento para mejorar el modelo de gobernanza actual desde diferentes puntos de vista. Por eso, votaremos a favor de la moción.

La **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Urkaregi Etxepare. El representante del grupo Nacionalistas Vascos, señor Bagan Urtiaga, tiene usted la palabra.

El Sr. **BAGAN URTIAGA** jaunak: Señora Presidenta, buenos días a todos y a todas. El grupo Elkarrekin Bizkaia presenta una moción derivada de una interpelación, en la que insta a la Diputación Foral de Bizkaia a adoptar diversas medidas para garantizar un gran nivel de calidad democrática en el funcionamiento y organización, y para ello se proponen diversos datos.

Aurkeztu dan mozino horren oinarrian baieztapen bat dago, Bizkaiko

Foru Aldundia oposizinoko taldeen kontrol politikoaren lana oztopatzen ari dala, hatan be; eta, horren ondorioz, kalidade demokratikoaren eza dagoala. Horixe dago oinarrian; eta baieztapen horregaz, ba, guk ez dogu bat egiten inondik eta inora.

Alde batetik, badakigu zein dan joko-arauak ezarten dauzan arau-esparrua. Hortxe daukagu 3/87 Foru Araua; izan be, 7. artikuluan adierazoten deusku Batzar Nagusiei jagokela Bizkaiko Foru Aldundiaren jarduera kontroletea eta bultzatzea, eta helburu hori beteteko informazino egokia izango dabela.

Era berean, Batzar Nagusi honeen arautegia be badaukagu; bertan, 6. tituluari, Gobernuaren ekintzaren kontrola eta bultzada arautzen da, hain zuzen be. Eta kontrol politikoko hainbat modu arautzen dauz zehetasunez: agerraldiak, itaunak, idatzizko galderak, eztabaida monografikoak, politika orokorreko eztabaidak eta beste batzuk. Kontrol politikoa egiteko modu desbardinak erabilten dira. Osoko Bilkura honeetan eta Batzordeetan ikusten dira. Eta 13. artikulua be badaukagu, eskari horreek, informazinoa eskatzeko egiten diran eskarien prozedurak zelan garatu behar diran arautzen dauena. Eta informazino publikorako sarbidea arautzen dauen Gardentasunaren 1/2016 Foru Araua be aitatu gurako neuke; izan be, gardenak izatea botere publikoen betebeharrak demokratikoa da, euren ahalak erabiliz. Eta Bizkaiko Foru Aldundiak estandar garrantzitsuak beteten ditu.

Beste alde batetik, datuak daukaguz. Aurreko agintaldian 4.946 kontrol-ekimen izan ziran, eta agintaldi honetan, orain arte, 1.310 kontrol-ekimen garatu dira, 184 agerraldi, 197 ahozko galdera, 240 informazino-eskaera eta 359 idatzizko erantzun. Zerbaki horreek kontrol politikoko jarduera garrantzitsu bat islatzen dabe.

Eta horri gehitzen badeutsagu gardentasunagaz, informazinoagaz, eta hoba ez, kasu honetan Batzar Nagusiek Bizkaiko Foru Aldundiari egiten deusien kontrol politikoa daukagun erabateko eta zalantza bako konpromisoa, baina sendo-sendo eta normaltasun osoz, horrek guztiak testuinguru bat eratzen dau, eta testuinguru horretan nik neuk uste dot sano gaxa dala esatea kontrol politikoaren lana oztopatzen ari garala, eta arabere gitxiago esatea orokorrean Bizkaiko Foru Aldundiak kalidade demokratikoaren falta daukala.

Errealidadeagaz bat ez datorren egoera bat azaltzen dozue; izan be, Etxanobe andreak aurreko Osoko Bilkuran esan eban moduan, erabateko erantzuna emoten jake sartzen diran ekimen guztiei. Hortxe dagoz jagokezan foroetan gauzatzen diran agerraldiak, itaunak, ahozko galderak, etab. Danok ikusten doguz; eta bai, izan leiteke, eta gertatzen da, egoera jakin batzuetan informazino-eskabideen epeak edo galdera idatziak erantzuteko epeak betetea ezinezkoa izatea, izapidetze hori zailtzen daben errazoi tekniko desbardinakaitik. Sailek Foru Aldundiari jagokozan gaiak kudeatu behar dabez, botere betearazlearen zeregin nagusia dalako. Eta eskabide horreei guztiei erantzutea, galdera horreei erantzutea, ba ez da beti eroso izaten. Eta azken garai honetan, irailtik hona doala esan dozuen garai horretan, egoera be ez da guztiz normala izan sailetan, lan-karga handia euki dabelako. Eta kasu batzuetan oso zaila izan da. Izan be, gaian arreta jartearren, dokumentazinoa emoten danean eta galderei idatziz erantzuteko orduan dagozan atzerapenak daukaguz berbabide, kasu jakin batzuetan, eta sail batzuetan.

Hortik Bizkaiko Foru Aldundiaren funtzionamentu orokorrean ez dagoala kalidade demokratikorik esatera, niri behintzat, gehiegizkoa iruditzen jat.

Eta esandakoa, ba bai, hobetu egingo dogu. Aldundi honen kudeaketa-eremu guztietan aurrera egiteko eta hobetzeko etenbako ahalegin horretan, honetan be egingo dogu. Hoba ez. Eta, gainera, gai teknikoek ari bagara, errazagoa izango da. Urkaregi andreak Gardentasunari buruzko Foru Araua aitatu dau, eta egia. Zalantza sortu jat ea berrerabilteko formatu hori eskatu leiteken Gardentasun Arauak arautzen dauen dokumentazinoaren kasuan, edo zuok edo talde politikook eskuratu ahal zeinkien dokumentazinoaren kasuan, Gardentasun

Arauan arautzen danagaz ez datorrelako bat, baina hori parentesi artean dinotsut.

Aurreko guztia esan ondoren, gure taldeak, hobetzeko asmo horregaz, ez dau ekimen hori babestuko, gure ustez, neurritz kanpokoak dan eta errealdadetik erabat urruntzen dan diagnostiko batetik abiatzen dalako. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Bagan Urriaga. Pasando al turno de réplicas, la representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, señora De Madariaga Martín, tiene usted la palabra.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta.

Goiz osoa daroagu berbetan gobernu onaz, parte-hartzeaz, lankidetzaz, kritikak onartzeaz. Eta hona hemen lagin bat. Hamezan Foru Gobernuari eusten deusazuen taldeak, hortzez eta haginez defenditzen. Hara, bi adibide ipiniko deusuedaz, adibide bi, eta mozino honegaz beragaz daukie zerikusia.

Gaurko mozinora heltzeko, itauna bi aldiz aurkeztu behar izan dogu; izan be, agirian jarten saiatzen garanean Foru Gobernu honek eta, gainera, Foru Gobernuari eusten deusien taldeek batzarkide-taldeon kontrol-lana eta kontrola egitea oztopatzen ahalegintzen dirala, gauzak ez dira izapidetzen, hori da jazoten dana.

Beste adibide bat ipiniko deusuet...

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Por favor, señora De Madariaga Martín. Ha utilizado en estos momentos un dicho que va en contra de los criterios de la mesa. Y ha tenido disponible, si así lo hubiera querido, el instrumento que la normativa le ofrece. No lo utilizó; por lo tanto, por favor, no haga ahora mención en contra del órgano de gobierno de estas Juntas Generales, por favor, cuando no es el momento.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Tira, ez dogu kontuan hartuko, baina gertatzen da.

Nik esaten dodan gauza bakarra da administrazio-trabak gertatzen dirala, eta horreek, gainera, arin konpontzen dirala. Behin 6 gai sartzen dozuzanean, eta ez jakenean erantzuten garaiz eta behar dan moduan, eta beharrezkoa danean, eta ahozko galderetara pasau daitezala eskatzen danean, kasualidadez, berehala heltzen dira galdera horreen erantzunak.

Gil andrea, nahita da, bai. Sentitzen dot hau nahita dala esatea. Agerraldiakaz eta Osoko Bilkurakaz zerikusia daukan kontrola egitea dinozue, hoba ez. Begira, Etxanobe andreak berak bere momentuan agerraldian bertan oposizionoko taldeen erantzukizuna eskatu eban. Baina, zer da hau? Erantzuten ez dauena Gobernu da, ez oposizionoko taldeak. Ez dakit zer dan eskatu behar dana. Hainbat eta hainbat ekimeni erantzuten deusezuela dinozue, 1.310 kontrol-ekimen. Begira, baina, badakizue batzuetan zer gertatzen dan? Gainera, zure taldeko aurreko bozeramaileak esaten eban kopurua ez dala erantzunen kalidadea baizen garrantzitsua. Kanpoko enpresa batek egindako txosten bat eskatzen dogu, eta Bizkaiko Aldundiak egindako txosten juridikoa emoten deuskuzue. Danak dauka zerikusia. Proiektu jakin bati buruzko dokumentazioa eskatzen dogu eta Gobernuaren legegintzaldiko plana bialtzen deuskuzue, hor azaltzen diran 3 lerro irakurri daiguzan; izan be, badakigu 3 lerro horreek hor dagozana, baina ez dabe ezertxo be azaltzen.



Begira, beste adibide bat emongo deusut. Eta hori oso arin egiaztatzen da. Eskabide bera egiten danean, foru-erakunde baten bilera bateko aktak eskatzen diranean, esaterako, orain bulegoetara joan beharra daukagu, orain dala 10 urte eskaneata bialtzen euskuezan arren. Atzerantza ete goaz gardentasunaren kontu honetan? Orain dala 10 urte baino okerrago ete gagoz? Hau ez da lantzean behingo kontua, eh? Ez da sail bakarreko edo bi sailetako disfunzinoa. Gainera, esan geuntsun aurreko itaunean: Gizarte Ekintza, Ekonomia eta Erakunde-sustapena, Kultura, Enplegua. Hau ez da lantzean behingo kontua, ez zarie beteten ari oposizinoko taldeakaz. Ganbera honetan herritarren zati handi baten ordezkariak gara; ez zarie beteten ari, horretara behartzen zaituen arau bat dagoan arren; eta, gainera, ezagutzeaz harropuzten zarie. Ez, ez dozue beteten. Sasoiz kanpo emoten dozue informazinoa, datuak ezkutetan dozuez; gainera, egoera politikoaren edo zeuon komenentziaren arabera bihurtu egiten dozue, ez dalako danakaz jazoten. Ez da danakaz jazoten. Gai jakin batzukaz jazoten da. Traba egiten dabenak, Gobernuari enbarazu egiten deusienak, horreek dira atzeratzen diranak, eta ezetz esaten deuskuzue, baina daborduko kontrol bilkuren aurrean agertzen gara erantzuteko. Jakina, hoba ez. Hoba ez! Hortik be, ahal bazendue, beharbada iges egingo zeunkie.

Bigarren ataza bat dagoala be aitatu dogu, administrazioaren kalidade demokratikoari buruzko ebaluazinoa egitea. Antza, ados zagoze, hori garrantzitsua dala uste dozue, interesgarria dala ebaluazino hori egitea. Ba babestu eizue, bozkatu daigun puntuka. Ez zatoze bat Gobernu kritiketari dauen lehenengo zatiagaz, baina emoten dau kalidade demokratikoaren balorazinoa egin ahal izatea interesgarria dala erexten deusazuela, dagozan zailtasunak gorabehera; izan be, hori neuk be onartzen dot, baina busti gaitez danok, eta lupeztu beharrean, Gil andrea, bigarren zati horregaz hori egiten saiatu zaralako, ba joan gaitez alkarregaz lupetz artera, saiatu gaitez mahai bat eratzen, edo gai honi konponbide bat emoteko zeozer egiten, eta amaitu daigun gaur Foru Erakundearen kalidade demokratikoa baloretako tresna bat sartzen; izan be, ona dan ezkerro, ez dot uste arazorik egongo danik. Beste barik, eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora De Madariaga Martín. La representante del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, señora Fernández Angulo, tiene usted la palabra.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Eskerrik asko, Mahaiburu andrea.

Nire lehen agerraldian ninoan moduan, oposizinoak, besteak beste, alkarlanean lan egin behar dau, eta bere gain hartu behar dau bai desadostasunaren eta bai bizkaitarren ongizaterik handiena bilatzearen erantzukizuna be.

Baina, hori lortzeko, oposizinoak informazinoa eskuratu behar dau, proposamenak egiteko, kontrastetako eta eretxi publikoaren eta herritarren aurrean be entzunarazoteko.

Ez dodaz barriro esango dokumentazinoa edo informazinoa eskatzen danean gertatzen diran adibideetako batzuk, nire aurretik berba egin dabenek eta oposizinoko taldeetako ordezkariak daborduko aitatu dabezalako. Eta ez dot uste beharrezkoa danik be; baina abaguneak horretarako aukera emoten dauela uste dot, hau da, gogorarazo behar deusuet oposizino mutu edo ausente batek zailtasunak dituala lan hori egiteko; ez dinot hori danik kasua, ez dinot unada honetan Batzar Nagusi honeetan gertatzen danik, baina lantzean behin gertatzen da, gurako geunkenetan baino gehiagotan, eta horrelango oposizino batek bidea garbi itxi lei erabagiek talde politiko jakin batzuen interesei bakarrik erantzun degieen.

Müller politologoak inoana gogoratzea interesgarria dala uste dot: populismoak etsaiak behar dauzan bitartean, demokraziak oposizinoa behar dauela. Zentzu horretan, benetan balio demokratikoak partekatzen badoguz, funtsezkoa da onartzea gitxienez gorritu egin beharko zinatekiela Gobernu lez, gardentasunik ezaren edo iluntasunaren akusazio txikiaren aurrean, akusazio hori oso ahula balitz be, edo informazioa eskuratzeko falta edo zailtasunei buruzko aitamenak egiten diranean. Izan be, horrek ez dauka beste helbururik, eta hori argi ikusten dogu danok, oposizino taldeen lan legitimoa oztopatzea baino. Era berean, begi-bistakoa da Ganbera honetan Gobernuarentzat oposizinoa eragile deserosoa dana. Gobernuak Bizkaiko gizartearen arazoak konpontzeko daukan ikuspegi berezia beste barik aplikau dagian oztopo lez ikusten da, eta, horretaz gainera, Gobernuaren ekintzen, egiteen eta erantzunen ahots kritikiko nagusia da. Baina, deserosoa izan arren, Gobernuak be gogoeta horretan, edo Euzko Abertzaleak taldeko bozeramaileak eta Euskal Sozialistak taldeko bozeramaileak aitatu daben hobekuntza-bide horretan uste dot zeuok be badakizuela, deserosoa izan arren, gure betebeharra dana hori egitea.

Eta uste dot informazioa eskuratzeko mugak saihesteko hobetu beharreko alderdi asko dagozala; izan be, aukeratutako arau-tresnagaitik zuzenketak egiteko eta proposamenak egiteko zailtasunak izan doguz, eta horrek izugarri zaildu dauela uste dot oposizinoak daukan zeregin nagusienetako bat, hau da, ekimen- eta proposamen-gaitasuna. Eta gauza horreek, azken baten, zozeren kaltetan izan dira, eta, nire ustez, oposizinoaren bizkar-zorroa be sasoi honetan gertatu danagaitik erreklamazioz eta kritikaz kargauta egotetik harago doa. Uste dot laster amaituko dogula ikasturte politikoa, irailean hasiko da barrero, eta nire eretxian, unada egokia da danok, baina batez be Gobernuak hurrengo ikasturte politikoa zelan hasiko dogun hausnartu dagian, eta legealdia amaitzeko geratzen jakuna une garrantzitsu bihurtzeko aukeraz gogoeta egin dagian. Izan be, esan dodan moduan, une hau osasun-krisiaren egoeragaitik bereziki garrantzitsua da, baretzen doan arren, eta Gobernuari eta guri zeregin desbardina jagokun arren, hondino aurre egin beharreko ondorio ekonomiko eta sozialak geratzen jakuz eta, seguruenik, guztion artean gauzak hobeto egin geinkez, baina horretarako, oposizinoak bere zeregina oso-osoan garatu ahal izateko aukera gehiago euki behar dauz.

Horregaitik, eta amaituko dot, nire ustez, gertatzen ari dan immobilismoa gainditzeko modurik onena, beharbada ez diran arren hobekuntzarako berbak, benetan oposizino taldeok be ahalegindu beharko gara, baina zalantza barik, askoz gehiago jagoko Gobernuari, eta hori badakizue, baina uste dot hurrengo ikasturte politikoa lankidetzarako aukera gehiagogaz hasi ahal dogula, hasi ahal dozuela, eta hori Ganbera honetako ordezkari eta batzarkide guztiok bat egiten gaituanaren mesederako izango da, hau da, bizkaitarron ongizatearen mesederako. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Fernández Angulo. La representante del grupo Socialistas Vascos, señora Gil Llanos, tiene usted la palabra.

La Sra. **GIL LLANOS** andreak: Muchas gracias de nuevo.

Labur-labur; izan be, nire ustez, lehenengo agerraldian nahiko argi geratu dira taldeen jarrerak, eta, gainera, ez neuke gura nire agerraldiagaz pilotaleku-eztabaida bat sortzen laguntzea, hau da, batzuek eta besteek mobiduezinak diran postulatuen eztabaida, benetan. Eztabaida hori ez da eregitzailea, ez protagonista nagusia danarentzat, ez entzuten gaituen herritarrentzat be.

Izan be, benetan, gaurko eztabaida esaldi baten laburbildu leiteke, ezta? Errealidadeak ez deizula titular on bat hondatu, De Madariaga andrea. Izan be, gaur idea bat

finkatzen etorri zara hona, eta indar gehiagogaz edo gitxiagogaz oposizino beste talde batzuk batu jatzuz. Eta hauxe da: gobernuak nahita, eta sistematikoki nahita, oposizino taldeen kontrol-eginkizuna oztopatzen dauela, horrelan esan dozulako argi eta garbi tribuna honetan; eta, beraz, demokraziaren kalidadea hondatzen dauela. Eta hori benetan egia balitz, oso larria litzateke, De Madariaga andrea. Eta nire taldea bera izango litzateke lehena manifestazioaren buruan jarten, baina zuk egindako baieztapen horreek ez daukie gitxieneko zorrotasunik, Legebiltzarreko jarduerari buruzko datuak aztertzen badoguz, webgunean bertan agertzen diran datuen bidez eta Gobernuak berak be emon dauen informazioaren bidez.

Eta baieztapen horri eustea, nire eretxian, antipolitikara olgetea da, eta danok dakigu zertarako balio dauen horrek, populismoak areagotzeko, eta badakigu ze ondorio dakarrezan horreek be. Eta horretan ez dozue inoiz topo egingo Alderdi Sozialistagaz. Guk politikan sinisten dogu, herritarrek eta personen bizitzak daukiezan arazoak konpontzeko tresnarik onena dalako. Eta politika legezkatzen aurkituko gaituzue, eta politika legezkatzea ez doa Gobernuaren edo oposizinoaren ekintzari zentzun kritikoa emotearen aurka, eta azpimarratu egiten dot kritikoa.

Eta badaukagula zer hobetu esan deusuet, jakina baietz, eta atzerapenak egin dirala, bai horixe, eta onartu egin deusuedaz. Eta zuzendu egin behar dira, baina horrek ez dau esan gura kalidade demokratikoan arazoa daukagunik. Benetan, errealdadeagaz ez datorrela bat uste dot, eta ez dala egia. Eta, begira, politikan gehiegikeriak eta neurribakokeriak ez dira onak, gero gauzak esatera eroaten gaituelako; eta Fernández andreak esan dau barrero, eta niri ia-ia garondoa hausi egin jatala esan behar deusut batzar-egunkarian irakurri nebanean. Izan be, De Madariaga andreak bere aurreko agerraldiaren hasieran Bizkaiko herritarrek demokraziaren kalidadeari buruz daukien perzeptzioa oso handia dala inoan. Positiboa, ezta? Gainera, Gobernuak egiten dauzan marketin eta zalaparta handiko kanpainakaz finkatzen ei dau hori. Eta, jakina, Ganbera honetan parte hartu ondoren, zure taldeak guztiz bestelako perzeptzioa dauka gai horren inguruan. Eta esaldi hori aztertzen badogu, oso ikaragarria da, kasurik onenean, eta oso leun esanda, Bizkaiko herritarrei esaten ari zaralako oso kultur demokratiko eskasa daukiela, parte-hartze politikoaren kultura eskasa, ezjakina ez esatearren. Izan be, jakina, Bizkaiko demokraziaren kalidadea positiboa dala uste dabe, Aldundiko Gobernuak marketin kanpainak egiten dauzalako, eta horrek esan gura dau eraginerrazak dirala. Niri ez deustazue inoiz entzungo horrelango baieztapenik esaten Bizkaiko herritarren inguruan.

Aztertze modukoa dala erexten deusut, eta, gainera, aztertze modukoa da zuok daukauen errealdadearen perzeptzioaren eta herritarrek daukienaren artean alde bat eta desadostasun bat dagoala onartzea. Horrek, gero, beharbada, hauteskundeetako emaitzak ekarriko ditu, kontuan hartu daizuen dinotsut. Eta, jakina, Fernández andreak hori esan dauenean, ba harritu egin nau, horrelango gauzetarako zorrotzagoa izaten zaralako. Baina eztabaida honetan nagusitasun moralaren *tik* bat edo beste be asmau dot. Eta, egia esan, plasmaren alderdiaren irakasgaiak bidezkoak baino ez, ezta? Eskerrik asko. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Gil Llanos. La representante del grupo EH Bildu, señora Urkaregi Etxepare, tiene usted la palabra.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andreak: Sí, muchas gracias, señora Presidenta, y buenos días de nuevo.

A ver si nos tranquilizamos, porque parece que este es un debate terrible.

Creo que existen diferentes modos de lectura de esta moción. Y algunos y algunas de ustedes manifiestan que es que aquí se identifica, se dice que no se facilita la información, y que entonces eso conlleva a decir que no existe una calidad democrática. Bueno, EH Bildu lo tiene claro y así lo ha manifestado al inicio.

En primer lugar, existen numerosas propuestas para mejorar el modo en que se facilita la información. Y lo he puesto sobre la mesa. He señalado también el indicador de la calidad democrática. He mencionado que debe ser un indicador que vaya más allá de la transparencia. Y, por supuesto, no lo he mencionado, pero tengo claro que garantizar la información va más allá de la calidad democrática.

Yo creo que en la moción no se identifican las dos cosas. En la moción lo que se plantea es que se crea un indicador que mida la calidad democrática de la Diputación Foral de Bizkaia. Yo al menos lo interpreto de esa manera. Sé que es difícil, pero creo que es un instrumento para mejorar el modelo de gobernanza. Y, entonces, es eso lo que tenemos que pensar, yo he hecho esa lectura de la moción, y creo que existen propuestas de mejora.

Por una parte, anteriormente he mencionado los plazos. Y de verdad les digo que la Covid-19 no es un pretexto. Sé que Acción Social está sobre la mesa una y otra vez. Pero también he mencionado antes que los problemas que EH Bildu tiene con el Departamento de Acción Social para acceder a la información no es una cuestión de ahora. En la anterior legislatura teníamos el mismo problema. Se vencían los plazos, no se facilitaba la información, teníamos que solicitarla dos veces. Entonces, ahí existe un problema, y yo he respetado la Covid-19; mientras hemos estado en la situación más grave de la Covid-19 no he vuelto a solicitar, cuando estaba sin solicitar, pero cuando hemos solicitado que comparezca aquí el diputado de Acción Social para dar cuenta ha sido porque ya se habían superado todos los plazos, todas las vías, y así. Y antes he mencionado que la Norma Foral de Transparencia establece el formato reutilizable.

El señor Bagan ha señalado que desconoce si eso hace referencia a la información pública o a aquella que sea para nosotros y nosotras. Yo también lo desconozco. Pero si es para la ciudadanía, también somos ciudadanos y ciudadanas. Y lo que usted ha manifestado me ha recordado una cosa. Yo a veces digo: igual utilizaré la página web y la vía para acceder a la información pública para solicitar la información. ¿Por qué?

Porque la Norma Foral de Transparencia establece una comisión, y debo reconocerles, y lo he dicho siempre, que cuando se ha llevado a cabo, esa comisión ha funcionado bien, y esa comisión ha obligado al Departamento de Acción Social a que facilitara a la ciudadanía aquella información que había solicitado esta sobre la influencia de la Covid-19 y que el Departamento de Acción Social se negaba a dar. Lo ha obligado la comisión, y el Departamento de Acción Social ha facilitado la información. Nosotros aquí, los grupos de la oposición, no tenemos un instrumento como ese. Sé que será difícil, lo siento, pero tenemos que solicitarlo de nuevo a la mesa, y entiendo que la mesa sigue su camino, pero que luego eso no influye en realidad a la hora de obligarle a facilitar esa información a tiempo.

Y luego, lo he dicho anteriormente. Ese es un aspecto que hay que mejorar, el de facilitar la información; y otro aspecto es el de crear un indicador de la calidad democrática. Yo no relaciono ambos aspectos, creo que será un instrumento válido en lo que respecta al modelo de gobernanza, y para comprobar si funcionamos bien o funcionamos mal, y por eso mismo votaremos a favor.

¿Que es difícil? Evidentemente. ¿Que es complejo? También. Pero si vemos que es necesario un instrumento como ese, empezamos a trabajar para ver qué apartados deben tenerse en cuenta para elaborar ese indicador, cómo lo vamos a hacer, hay personas expertas, podemos debatirlo, por ejemplo, tal y como se está haciendo con la señora

Mazzucato en Hacienda para proponer un indicador como ese. ¿Por qué no buscamos otras personas expertas para proponer aquí que mida la calidad democrática de la Diputación Foral de Bizkaia? En nuestra opinión, será positivo, y redundará en beneficio de todos y todas. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Urkaregi Etxepare. Y para finalizar con el debate, el representante del grupo Nacionalistas Vascos, señor Bagan Urtiaga, tiene usted la palabra.

El Sr. **BAGAN URTIAGA** jaunak: Bai. Lehenengo txanda amaitu dodan moduan ekingo deusat bigarren txanda honi, hau da, aurrera egiteko, hobetzen joateko asmoagaz, eta batzuetan informazioa emoteko eta idatzizko galderei erantzuteko epeak beteteko oztopoak ipinten deuskuezan arazo tekniko horreei konponbideak bilatzen saiatzeko asmoagaz. Baina testuinguru bat dago, testuinguru baten sartuta dago.

Lehenengo egunean, Elkarrekin Bizkaia taldeak berbaz berba irakurriko dodazan mezuak bota ebazan. “Nire taldearen eretxian, hori Foru Gobernuak argi eta garbi eta nahita egin dau oposizionoko taldeen kontrol-lana oztopatzeko, eta, aldi berean, horrek Foru Aldundia erakunde opaku bihurtzen dau, eta herritarren kontroletik iges egiten dau. Hori da Gobernu honen estrategia politikoko joko politikoa; izan be, ez deutse herritarren beharizanei erantzuten, baina bai bere alderdiaren interes partikularrei. Hori ez da gardena izatea, eta hori ez da Gobernu izatea, hori ez da demokrazia, zuek definitu gura dozuen moduan”. Eta gaur gauza bera ostera be. Baina deskribitzen dozuen egoera ez da erreal.

Gutziz neurritz kanpokoak diran ondorio batzuetara heldu zarie eta, nire ustez, urrunegi heldu zarie. Ez dogu onartuko zalantzan jarrea erakunde honen, Bizkaiko Foru Aldundiaren funtzionamentua eta kalidade demokratikoa. Zuok, gai honetan, beste gai batzuetan moduan, epaitu egiten dozue erabat, zuontzat ez dago erlatiborik, dana da negatiboa. Eta jarrera horretatik sano gatxa da adostasunetara heltzea zuokaz; sano gatxa da adostasunetara heltzea.

Bizkaiko herritarrek demokraziari buruzko perzeptzio handia daukiela, Gil andreak esan dauen moduan; jakina, baina zuok argitzera zatoze, hori marketin- eta publizidade-kanpainei eta zeozelan gidatutako inkestei esker dala. Baina ez, erratuta zagozela uste dot. Nire ustez, herritarrek asmatu egiten dabe perzeptzioan; eta beste gai batzuetan be, beste horrenbeste. Gero, osasun-krisiaren ondoriozko kudeaketei jagokenez, Euskadik oso ondo funtzionau dauela esan deusku Europako Kalidade Institutuak. Gauza bera dinoe gizarte-politikei eta gizarte-zerbitzuei buruz be, eta gizarte-zerbitzuetako gerenteen eta zuzendarien estatuko alkarte batzuek be Euskadik estatuko gizarte-zerbitzurik onenak daukazala dinoe, eta ziur nago arlo honetan be antzeko zeozer dinoena.

Hobetzeko asmoa bai, baina errealidadea dagoana da. Muchas gracias. Aurka bozkatuko dogu.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Bagan Urtiaga. Y finalizado el debate, debemos someter a votación la moción.

¿Votos a favor de la moción? ¿Votos en contra? No hay abstenciones. Por lo tanto, el resultado es el siguiente:

Se han emitido 49 votos en total. 17 han sido votos a favor, 32 en contra; no ha habido abstenciones. Por lo tanto, no se ha aprobado la moción. El punto séptimo del

orden del día.

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

7.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Entidades Locales:

Banderas, Denominación y Escudo

[\(R.E.11/E/2021/0001590\)](#)

**Autor:** Diputación Foral de Bizkaia

**Asunto:** Acuerdo adoptado por la Diputación Foral de Bizkaia por el que se propone la modificación del escudo heráldico y la creación de la bandera del municipio de Mendata.

**Documento Principal:** [Ver](#)

**Boletines:** [Admisión a trámite](#) (3A),

[Dictamen de la Comisión](#) (3B)

**Expediente:** [\(11/B/13/0002322\)](#)

7.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

**Jatorrizko ekimena:** Toki erakundeak:

banderak, izenak eta armarrriak

[\(11/E/2021/0001590SE\)](#)

**Egilea:** Bizkaiko Foru Aldundia

**Gaia:** Mendatako udal armarrria aldatzea eta udal bandera sortzea proposatzeari buruz Bizkaiko Foru Aldundiak hartutako erabagia

**Dokumentu Nagusia:** [Ikusi](#)

**Aldizkariak:** [Izapidetzeko onartzea](#) (3A),

[Batzordearen Erizpena](#) (3B)

**Espedientea:** [\(11/B/13/0002322\)](#)

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Abriremos el turno de los grupos. El Grupo Mixto-Partido Popular no va a intervenir. El representante del grupo Elkarrekin Bizkaia no va a intervenir. El representante del grupo Socialistas Vascos no va a intervenir. La representante del grupo EH Bildu, señora Arantza Urkaregi, desde el escaño.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andreak: Sí, el Ayuntamiento lo aprobó por unanimidad. Hay que mencionar que se aprobó en marzo de 2018. Entonces, el procedimiento es largo, pero han puesto en marcha el proceso y han dado todos los pasos que eran precisos, todos los informes son favorables, y nos corresponde dar el visto bueno a lo que el Ayuntamiento aprobó por unanimidad, y, por lo tanto, votaremos a favor.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Urkaregi Etxepare. Y la representante del grupo Nacionalistas Vascos, señora Inoriza Bustamente, desde el escaño.

La Sra. **INORIZA BUSTAMENTE** andreak: Sí, muchas gracias.

Gure aldetik, adierazi behar dot, era berean, administrazino-aldaketa bat izan dala, Foru Arauak arautua eta Osoko Bilkuran onartua. Eta, alde horretatik, txosten guztiak aldekoak diran ezkerro, eta horretarako aurreikusitako prozedurari jarraituz, gure taldeak be babestu egingo dau aldaketa hori.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Por lo tanto, finalizado el debate, someteremos a votación el dictamen de la comisión.

¿Votos a favor? Han sido 49 votos emitidos. Y son 49 votos a favor. Por

lo tanto, se aprueba por unanimidad.

Y con esto hemos finalizado el orden del día de hoy. Por lo tanto, finaliza la Junta General. Tengan todos y todas, un buen día.

Batzarra 13:20an amaitu da.

Se levanta la sesión a las 13:20 horas.